

Batxilergoko Ekonomia Eskuliburuaren Kritika

Maitane Jaio Atela
Javier Murillo Arroyo
Jon Bernat Zubiri Rey



Aurkezpena	4
Sarrera	6
Txostenaren justifikazioa eta xedea	6
Unitateen aurkezpena	6
<hr/>	
Gaien analisia	8
1 UNITATEA: EKONOMIA: ERABAKIEN ZIENTZIA	8
2 UNITATEA: HAZKUNDE EKONOMIKOA	11
3 UNITATEA: EKOIZPENA	14
4 UNITATEA: MERKATUA	15
5 UNITATEA: MERKATU-MOTAK	17
6 UNITATEA: LAN-MERKATUA	19
7 UNITATEA: ESTATUAREN EGINKIZUNA	22
8 UNITATEA: ADIERAZLEAK ETA OREKA MAKROEKONOMIKOA	24
9 UNITATEA: ESTATUAREN KONTUAK	26
10 UNITATEA: DIRUA ETA MONETA-POLITIKA	28
11 UNITATEA: FINANTZA-SISTEMA ETA BURTSA	31
12 UNITATEA: NAZIOARTEKO MERKATARITZA	33
13 UNITATEA: EUROPAR BATASUNA (EB) ETA GLOBALIZAZIOA	36
14 UNITATEA: MUNDUKO EKONOMIAREN DESOREKAK	39
<hr/>	
Ondorioak	42
Unitateen elementu nagusien laburpena	42
Batxilergoko 1. mailako Ekonomia ikasgaiko McGraw-Hill liburuaren balorazioa ..	45

Egileak: Maitane Jaio Atela
Javier Murillo Arroyo
Jon Bernat Zubiri Rey

Koordinazioa: Finantzaz Haratago
Diseinua eta maketazioa: Diseñame



© Finantzaz Haratago, 2021



Babesleak:



Aurkezpena

Finantzaz Haratago, (Finantza Etiko eta Alternatiboetako Hezkuntzaren Euskal Sarea)

plataforma bat da, ekonomiaren alorreko hezkuntza kritikoa sustatu eta zabaldu nahi duena, modu horizontal eta parte-hartzailean, helburu batekin: erreferentziatzeko espazio bat bilakatzea mundua ikusteko beste molde bat posible eta beharrezkoa dela uste duten pertsona eta erakunde guztientzat. Horretarako, ikasleek –eta gizarteak, oro har– ekonomiaren, enpresen eta finantzen alorrean jasotzen duten hezkuntzari buruzko hausnarketa kritikoa eta eraikitzailea sustatzen du.

Duela urte batzuk, erakunde batzuek (Elkarcredit, Mugarik Gabeko Ekonomialariak, Koop 57 EH, Fiare Proiektuari Laguntzeko Elkartea, Oikocredit Euskadi eta Setem Hego Haizea) finantza-sistemari buruz eta horrek egungo hezkuntzan dituen baliabideen inguruan hausnartu zuten, eta ondorioztatu zuten ohiko bankuek presentzia nabarmena eta aktiboa dutela ikastetxeetan. Hala, haien mezua errepikatzea ahalbidetzen duen prestakuntza eskaintzeko eta materialak sortzeko aukera dute, eta sistema kapitalista hegemonikoa irauarazteko eta homogeneizatzeke.

Hori dela eta, horri aurre egiteko estrategiak bilatzeko prozesu kolaboratibo baten ondoren, Finantzaz Haratago sortu zen, zenbait baliabideren bidez ekonomia eraldatzaileen aldeko hezkuntza garatzeko ahalegina egiten ari den sarea. Horretarako, mundu mailako beste sare batzuekin elkarlanean dihardu, eta haiengandik ikasten. Gainera, beste material eta baliabide batzuk eskaintzen ditu, egungo sistema ekonomikoaz bestelako ikuspegi bat sortzen du, jardun hori guztia errazten duten praktika pedagogikoak partekatzen ditu, bidezkoagoa, sozialagoa eta jasangarriagoa den mundu baterantz joateko aukerak erakusten ditu eta abar.

Elkarrekin egindako lehen proiektuaren emaitza dokumentu bat izan zen: **“Finantzaz Haratago: Finantzen hezkuntza birpentsatzen ikuspegi etiko eta**

parabankario batetik”. 2017ko urrian aurkeztu zen, Finantza Hezkuntzaren Egunean. Egindako prozesuaren sistematizazio bat da, parte hartu duten eta kontsultatuak izan diren pertsonen eta erakundeek ekarpenak bildu eta agerian jartzen dituen, hausnarketa partekatua sustatzeko, eztabaidan sakontzeko eta hezkuntza-curriculum osatzen duten eduki hezigarrietan eragiteko, baita eta azpian datzan paradigma ekonomikoan ere.

2019ko apirilean, Ecuentro de Confluencias [Elkarguneen Topaketa] jardunaldian izan ginen, Bartzelonako Ekonomia Eraldatzaileen Munduko Foro Soziala prestatzen. Finantza etikoen alorreko hezkuntzari buruzko jardueraren parte hartu genuen, eta estatu mailako **Finantza Etikoen eta Solidarioen alorreko Hezkuntza baten aldeko Sarea**, (RedEFES, la Red por una Educación en Finanzas Éticas y Solidarias)¹ sortu genuen zenbait erakunderen artean, hau da, Finançament Ètic i Solidari (FETS), Fundación Finanzas Éticas Oikocredit Catalunya eta Finantzaz Haratago. Sare horretan, hezkuntza ekonomiko kritikoa eta finantza etiko eta solidarioak sustatzen dituzten pertsonak, erakundeak eta plataformak biltzen dira, betiere hezkuntza eta finantza horiek ulertuta pertsonak eta planeta erdigunean jarriko dituen ekonomiaren engranaje gisa.

RedEFES erakundearen asmoa da mundu mailako sistema hegemonikoarekiko kritikoa izango den hezkuntza sustatzea ekonomiaren alorrean. Horretarako, gazte

jendea bestelako aukera ekonomikoetan inplikatu nahi dugu, hau da, bidezkoak, parekideak, jasangarriak eta giza eskubideekiko eta planetarekiko errespetuzkoak diren aukeretan. Hori egiteko, ezinbestekoa da baliabide pedagogiko eta metodologikoak partekatzea, finantza-sistemak gizartean, ekonomian, generoan eta ingurumenean dituen eraginak aztertzea ahalbidetzen dutenak, baita finantza etikoak sustatzea ere, gizartea eraldatzeko tresna gisa. Lehenik eta behin, sarea osatzen duten pertsonen eskura dagoen baliabideen banku bat eratu da, eta haien balorazioak jasotzeko prestatu. Bestalde, eztabaidarako gune bat ere sortu da, baita sarearentzat eta parte-hartzaileentzat interesgarriak izan daitezkeen esperientziak jasotzen dituen gune bat ere.

Azken hilabeteotako pandemia lehenagotik zetorren mundu mailako krisiari (krisi sistemikoa, askotarikoa eta asimetrikoa) gehitu zaio, eta hauxe da hezkuntza eraldatzailearen aldeko hautua egiteko unea. Finantzaz Haratagon argi dugu: finantza-hezkuntza hezkuntza-proiektuaren parte bada, ezinbestekoa da hor eragitea, sistemak pertsonengan, gizartean eta ingurumenean duen inpaktuaren sentsibilizazioa ere txertatzeko eta bidezkoagoa eta solidarioagoa den gizarte baten eraikuntzan dauzkagun erantzukizun indibidual eta kolektiboak izendatzeko.

Ikasgeletan eduki eta eztabaida berriak behar dira, gazteek engaiamendu handiagoa eskura dezaten bidezkoagoak diren egitura ekonomiko eta sozialen eraikuntzan, desberdintasunaren aurkako borrokan, ingurumenaren babesean, mugimendu feministan, gobernantza demokratikoan eta giza eskubideen erabileran. Horregatik, Finantzaz Haratagotik zer eskatzen dugu: printzipio etiko horiek biltzen dituzten finantzak sustatzea hezkuntzaren alorrean, eta finantzek ekonomia errearen parte diren aldetik mundua eraldatzeko duten gaitasunaren berri ematea. Ekitatean, justizia sozialean eta giza eskubideetan oinarritutako sentipen eta ikuspegi batetik, ezinbestekoa da gaur egungo finantza-ereduarekiko eta horren parte diren erakundeekiko jarrera kritikoa erakustea eta, horrekin batera, erdigunean jartzea

zer eredu ekonomiko nahi dugun eta zer toki izan behar luketen eredu horretan finantzek; are gehiago, nolakoa izan behar lukeen finantza-hezkuntzak.

Finantzaz Haratagoren lehen dokumentu haren eranskinetan finantza etiko eta alternatiboaren alorreko material didaktikoa bildu genuen, baita finantza-hezkuntzaren alorreko zenbait ekimenen bilduma bat ere. Geroztik, dokumentu hura ebaluatzeko bilerak egin ditugu irakasleekin eta eraldaketaren alorrean diharduten agenteekin, prozesuarekin aurrera jarraitzeko. Bada, pertsona eta erakunde haiek zera eskatzen zuten, **“denbora gehiago eta finantza etikoei eta ekonomia feministari buruzko material gehiago”**, eta nabarmentzen zuten arazorik handienak zirela **“denbora falta, irakasleen ezjakintasuna gai zehatz batzuetan eta material egokituaren gabezia”**. Ikastetxeetako irakasleekin egindako batzar haietan, ohartu ginen baita arazo bat zegoela ekonomiaren eta finantza-hezkuntzaren alorrean erabiltzen zituzten eskuliburuekin; izan ere, denek ekonomia kapitalistaren diskurtso hegemonikoarekin bat egiten zuten, behin ere aipatu gabe jardueraren ekonomiko aztertzeke ikuspegi ugarietako bat besterik ez dela. Hala, ikasleen begietara egia bakar eta ukaezinak bihurtzen ziren testuliburuaren azaltzen ziren ideiak.

Ekonomiaren, enpresaren eta finantza-hezkuntzaren alorrean ikasleei zuzendutako testuliburuaren nagusi den ikuspegia agerian jartzeko, ikerketa hau egiteko eskatu diegu ondoko hauei: **Maitane Jaio** (Ekonomia Análisis masterduna, Eusko Jaurlaritzaren Bigarren Hezkuntzako irakaslea), **Javier Murillo** (Ekonomian doktorea, Bigarren Hezkuntzako irakaslea eta irakasle elkartua UCM unibertsitatean) eta **Jon Bernat Zubiri** (Ekonomian doktorea Grenoble-Alpes Unibertsitatean eta irakasle-ikertzailea UPV/EHUko Ekonomia Aplikatua Sailean). Hartara, kritika- eta aniztasun-elementuak eskaini ahal izango dira, irakasgai horietako irakasleek ikerketa honetan lortutako emaitzak erabili dituzten haien lan pedagogikoan.

Sarrera

Txostenaren justifikazioa eta xedea

Batxilergoan, Ekonomiaren azterketak garrantzi berezia du, gizarte guztiek aurre egin beharreko arazo nagusiaren analisiari heltzen baitzaio, hots, haien erreproduzio materialari. Hala ere, interes materialen gatazkak, klase-gizartearen funtzionamendua arautzen duenak, jarduera ekonomikoaren azterketa ere baldintzatzen du.

Ikuspegi horretatik soilik uler daiteke gaur egungo ohiko ikuspegi nagusiak gabezia oso garrantzitsuak izatea, haren azalpen-gaitasuna mugatzen dutenak. Eta ikuspegi horretatik lantzen dira Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan erabiltzen diren testuliburuak. Egoera bereziki larria da, kontuan hartzen badugu ikasle

askorentzat hori izango dela ekonomiaren, enpresaren eta finantzen ikasketekin izango duten harreman bakarra beren ibilbide akademiko osoan.

Horregatik, interesgarriztat jo da bigarren hezkuntzako institutuetan Batxilergoko 1. mailan Ekonomia irakasgaia emateko gehien erabiltzen den testuetako bat hautatzea, haren ahulezia nagusiak agerian utziko dituen analisi kritiko bat egin ahal izateko. Azterlan honek ambizio handiagoko proiektu baten lehen fasea izan nahi du, testuliburu gehiagoren azterketa ekarriko duena, dituzten gabezia nagusiak identifikatzeko eta haiek gaitutuko dituzten material alternatiboak prestatzeko.

Unitateen aurkezpena

Batxilergoko 1. mailako Ekonomiaren alorreko McGraw-Hillen eskuliburuaren (2019ko Edizioaren) gai-zerrenda 14 unitatetan egituratuta dago. Pixkanaka, ekonomiari buruzko azalpen bat garatzen da, lehenengo unitateetako sarrera-elementuetatik hasi eta azken unitateetako elementurik aurreratuenetara arte.

1. unitatean, jarduera ekonomikoaren azterketara hurbiltzeko erabilitako ikuspegi metodologikoaren ezaugarri nagusiak aztertzen dira (azterketa hori eskasiaren kontzeptuan oinarrituta dago). Aurrez aurre jartzen ditu baliabide ekonomikoaren izaera mugatua eta pertsonen ondasunak desiratzeko duten irrika etengabea, indibidualismo metodologikoan oinarritutako ikuspegi batetik.

2. unitatean, hazkunde ekonomikoa aztertzen da, eta sistema ekonomiko desberdinak azaltzen dira, hau da,

kapitalismoa, plangintza zentralizatua eta ekonomia mistoa.

3. unitatean, berriz, ekoizpenari heltzen zaio, eta zenbait kontzeptu aztertzen dira, hala nola eraginkortasun ekonomikoa, eskala-ekonomiak eta errendimendu beherakorren legea. Enpresaren askotariko helburuak eta haren erantzukizun sozial korporatiboa ere lantzen dira.

4. unitatean merkatua aurkezten da, baliabideak esleitzeko mekanismo gisa, eta eskaintzaren, eskariaren

eta haien arteko orekaren faktoreak jorratzen dira, ikuspegi neo-klasiko garbi batetik.

5. unitatean elementu horiei buruzko informazio zabalagoa eskaintzen da, eta lehia-mailaren arabera merkatu-motak azaltzen dira, hau da, merkatu perfektua, merkatu monopolistikoa eta oligopolio- edo monopolio-egoeran dagoena.

6. unitatean lan-merkatuaren funtzionamendua aztertzen da, eta onartzen da merkatu hori ez datorrela bat lehia perfektuaren ereduarekin. Azterketa hori giza kapitalaren teoriaraino oinarritzen da, eta lansariari buruzko azalpen bat ematen da, nolabaiteko banaketa-justizian oinarritua. Gainera, langabeziaren arazoari ere heltzen zaio.

7. unitatean Estatuak ekonomian duen eginkizunari buruzkoa da. Merkatu-akatsak zuzentzeko, Estatuak hainbat politika makroekonomiko proposatzen ditu, jarrera keynesiarrean oinarritutako ikuspegi batetik. Unitate honetan hainbat adierazle ekonomiko ere azaltzen dira, ekonomiaren termometro gisa erabiltzekoak direnak.

8. unitatean esaten da BPGd-aren hazkundera dela ekonomiaren helburu nagusia, nahiz eta egiaztatuta dagoen indize horrek gabeziak dituela.

9. unitatean alor horri buruzko azken argibideak ematen dira, estatuaren kontuei eta zerga-sistemari buruzko azalpenarekin; horretarako, estatuaren diru-sarrerak azaltzen dira, baita haren aurrekontua ere, diru-sarrez eta gastuez osatuta dagoena.

10. unitatean diruaren eta diru-politikaren gaia jorratzen da. Horretarako, hainbat kontzeptu azaltzen dira: diruaren funtzioak, prezioen eragina, inflazioaren fenomenoak, hura neurtzeko moduak eta moneta-politikaren bidez esku hartzeko mekanismoak, gure kasuan Europako Banku Zentralaren bidez egiten dena.

11. unitatean finantza-sistema eta burtsa aztertzen dira. Horretarako, finantza-bitartekarien motak azaltzen dira, bankuei garrantzi handiagoa emanez eta dirua sortzeko duten gaitasuna aurkeztuz. Finantza-produktuak ere aurkezten dira, baita baloreen eta akzioen merkatuak ere.

Azken hiru unitateetan, aurrez ikasitako guztia mundu mailako ekonomian kokatzen da. **12. unitatean** nazioarteko merkataritzari buruzkoa da, eta haren funtzionamendua aztertzen du, merkataritza-politika nagusien (irekitasuna eta protekzionismoa) arteko alderaketatik abiatuta; gainera, ordainketa-balantzaren eta dibisa-merkatuen azterketa ere jasotzen da.

13. unitatean Europar Batasunaren azterketa orokorra jorratzen da, eta, zehazki, Espainiako ekonomiaren txertaketa integrazio-proiektuan. Bestalde, globalizazioa ere aztertzen da, mundu mailako ekonomiaren egungo fase gisa ulertuta, eta haren ondorio nagusiak baloratzen dira.

Testuaren amaieran, gaur egungo mundu mailako ekonomiaren desoreka garrantzitsuenei buruzko **14. unitate** bat dago, eta, besteak beste, arazo horiei aurre egiteko beharrezkoak diren gomendioak eskaintzen dira, politika ekonomikoaren alorrekoak.

[Liburuan zehar testuak, azalpenak eta jarduerak tartekatzen dira, eta, horien osagarri, adibide zehatzak eta bitxikeriak jasotzen dituzten laukiak ere eskaintzen dira. Jarraian, unitate didaktikoen fitxa sintetikoak aztertuko ditugu, eta sarrera, gaikako edukia eta proposatutako jarduerak aztertzeko eta kritikatzeko gako batzuk emango ditugu.](#)

Gaien analisisia

1. UNITATEA: EKONOMIA: ERABAKIEN ZIENTZIA

Sarrera

Izenburuak berak argi adierazten du zein izango den ez bakarrik unitatearen ardatza, baita testu osoarena ere. **Ekonomia, beharrak edo lan-jarduera eskuratzeko ondasunak ekoizteko prozesua aztertzen duen zientzia gisa identifikatu ordez baliabideen urritasunarekin lotzen da.**

Hasierako sarreratxoan unitatearen helburuak azaltzen dira, eta esaten da ekonomia hautaketaren zientzia dela. Ideia hori bat dator L. Robbins-ek XIX. mendearen amaieran emandako definizioarekin, eta nagusi da ekonomiaren ohiko ikuspegian. Beraz, sarreratxo horretan alde batera uzten da ordura arte erabilitako definizioa, gaur egungoa baino orokorragoa dena. Teoria horren

arabera, ekonomia gizarteen erreprodukzio materialaren prozesuaren azterketa zientifikoa da, eta ikuspegi horrek eskasia erlatiboaren azterketa ere barne hartzen du.

Hasieratik agerian geratzen da **jarduera ekonomikoaren antolaketa merkatuen bidez unibertsal bihurtu** nahi dela, izaera historikoa duen mekanismo gisa identifikatu ordez.

Unitatearen hasierako testua interesgarria izan daiteke ikasleak diru-iturri gisa ulertutako ausazko jokoen arriskuez kontzientziatzen saiatzeko, baina ez da egokia ikasleak Ekonomiaren ikasketan murgiltzen hasteko.

duen pizgarriei dagokienez, beste hau esaten da: "Gure erabakiak aldatu ohi ditugu, sari bat jasotzeko edo zigor bat saihesteko" (12). Eta ideia horretan sakontzen da zera esaten denean: "Erabakiak hartzeko, jendeak testuinguru jakin bateko kostuak eta onurak alderatzen ditu" (14). **Giza portaerari buruzko azalpen hori oso eskasa eta erabat sinplista eta erredukzionista da, eta, gainera, alde batera uzten du ingurune sozialak subjektuen portaeran duen eragina.** Nolanahi ere, bat dator pertsonen portaerari buruzko **ikuspegi utilistarekin, nahiz eta adierazi nahi den hori dela giza portaera azaltzeko balio duen ikuspegi bakarra.**

Edukia

Unitatea Ekonomiaren definizioarekin hasten da. Lehenik eta behin, ohar bat egiten da: diziplina ekonomikoa (Ekonomia) eta jarduera ekonomikoa bereizi behar lirakeke, bi ideia horiek ez nahasteko. Jarduera ekonomikoa beharrekin eta behar horiek asetzeko ondasunak eskuratzearekin lotzen da; halere, hasieratik adierazten da eskasia dela gizarteen arazo ekonomiko nagusia. Izan ere, eta sarreran adierazi bezala, Ekonomia eskasiaren zientzia gisa definitzen da, eta ez da esaten beste definizio batzuk ere badirela, Ekonomiari ikerketa-esparru zabalagoa esleitzen diotenak. Eskasiaren izaera unibertsaltzat jotzen da, eta, hori justifikatzeko, zera esaten da: "Guztiok nahi dugu daukaguna baino gehiago" (11). Ildo beretik, pertsonen portaera eragiten

Deigarria da, halaber, erabakiak hartzeko prozesua ekoizpen- eta kontsumo-faseekin lotzea, banaketa alde batera utzita... azken hori alderdi teknikoek zehaztutako prozesu baten emaitza balitz bezala. Ez dirudi egokia denik premisa horretatik abiatzea; izan ere, FAO erakundearen kalkulu batzuen arabera, 12.000 milioi pertsona elikatzeko gaitasuna dago. Hain zuzen ere, ondasun ekonomikoen eta ondasun askeen arteko desberdintasuna ondasunen berezko eskasian oinarritzen da unitatean, eta ez ondasunak eskuratzeko lana egin behar izatean. Beharren izaera soziala onartzen da, baina eragin hori bigarren mailako beharretara mugatzen da.

Gainera, unitate honetan efizientzia eta ekitate kontzeptuak kontrajartzen dira, inon definitu gabe, eta antagonismo hori honela justifikatzen da: "Guztien interesa bilatzen duten erabakiek baliabideak xahutzea eragin dezakete" (12). Baieztapen hori oso larria da, **horren funtsa baita interes partikularrean oinarritutako erabakiek baliabideen erabilera efizienteagoa dakartela defendatzen duen ikuskera, eta ez dago hori egiaztatzen duen ebidentzia empirikorik.** Ikuskera hori zuzena izan ala ez, arazoa da azalpen hori axioma eztabaidaiezintzat aurkezten dela. Lauki osagarri batean, hausnarketarako gonbita egiten zaie ikasleei, eta, efizientziaren eta ekitatearen arteko kontrajartzea baloratzeko, erabat desegokia eta lerratua den adibide bat ematen zaie; saiatzen da alderatzen zer bidegabea izango litzatekeen 'nahiko' orokor bat ematea ikasle guztiei (ekitatea) kontuan hartu gabe bakoitzak egindako ahalegina (efizientzia). Ildo beretik, beste hausnarketa bat ere planteatzen zaie ikasleei, ikuspegi erabat merkantilizatzailean oinarritua dagoena: zer eragin izango lukeen haien portaeran ikasgaia gainditzeagatik ordainsari bat jasoko balute. Zer balio sustatu nahi dira era horretako proposamenekin?

Ondoren, agente ekonomikoak aurkezten dira. Familien kasuan, gizartetik urrundutako ikuspegi batetik abiatzen da. **Klase sozialen existentzia onartu beharrean -eta, beraz, baita ekoizpen-prozesuan subjektuek bete ditzaketen funtzio desberdinak ere-, analisisa indibidualismo metodologikoan oinarritzen da:** familiak banakoz osatutako agregatuak besterik ez dira, eta guztiak dira ekoizpen-faktoreen bektore baten jabe (kapital-ondasunak, lana, natura-baliabideak edo enpresa-ekimena), zeinaren truke ordainsari jakin bat jasotzen baitute. Jakina, ez da desberdintasunik egiten faktore zehatz batzuen jabe diren eta ez direnen artean, hala nola kapital-ondasunak edo natura-baliabideak. Haien zoria antzekoa da gizarte-harremanen sarean: merkatuan saltzea, prezio (errenta) baten truk.

Errentaren fluxu zirkularraren eskema premisa horietan oinarrituta aurkezten da, eta horrek argibiderako ahalmena murrizten du. Beste sinplifikazio batzuk ere egiten dira, hala nola bitarteko ekoizpenik eza, aurrezpenik eza, autarkian oinarritutako ekonomia... Premisa horien gainean aurkezten da errentaren fluxu zirkularraren eskema, eta horrek bere azalpen-ahalmena



mugitzen du, eta beste sinplifikazio batzuk ere eragiten ditu, hala nola bitarteko ekoizpenik eza, aurrezpenik eza, autarkian dagoen ekonomia...; horiek metodologikoki justifikatuta egon litezke, hasiera-hasierako ulermena sinplifikatzeko, betiere ondorengo faseetan azterketa aberasten bada, suposizio horiek lasaituta.

Unitatearen amaieran, diziplina ekonomikoaren ezaugarri nagusiak aurkezten dira. Horretarako, **gizarte-zientzien izaera problematikoa ezkutatzeko zaie ikasleei: ez dira aipatzen gizartearen funtzionamenduaren azterketari metodo zientifikoak aplikatzean sortzen diren mugak.** Gainera, ez da aipatzen jardueraren ekonomikoaren azterketak duen izaera bereziki

gatazkatsua, zuzenean jokoan sartzen baitira gizarte-klase desberdinen interes materialak.

Adibidez, Ekonomiako subjektibitateak duen presentziaren kontua ezin eztabaidatzeko eran konpontzen da, eta baieztatzen da balio-irritziak iragaz daitezkeela azterketan ikuspegi positiboa mantenduz. Errealitateak erakusten digu jardueraren ekonomikoaren azterketan ekonomialarien balorazio subjektiboak ere itzuri daitezkeela. Azkenik, azpimarratu behar da Ekonomiaren diziplinartekotasuna paragrafo batean kitatzen duela.

da nola jotzen duen unibertsaltzat merkatu-ekonomia, unitatearen gainerako ataletan gertatzen den bezala.

Azkenik, *Náufrago* filma ikusi ondoren egiteko jardueraren proposatzen du, eta, hala, unitatearen oinarri den individualismo metodologikoan sakontzen jarraitzen da. Horrekin, jardueraren ekonomikoaren izaera soziala ezkutatu nahi da, eta zientzia ekonomiko zehatz batek ezinbestean hartu behar du aintzat izaera hori.

Ekonomia errealitatean atalean, ekonomia aztertze garrantzitsuak diren kontu metodologiko batzuk baloratzeko jardueraren proposatzen da; adibidez, korrelazioaren eta kausalitatearen arteko desberdintasuna. Beste debate interesgarri bat ere proposatzen da, jardueraren ekonomikoaren antolatze dauden bide desberdinak azterketaren erdigunean kokatzeko; hor, nabarmena

da nola jotzen duen unibertsaltzat merkatu-ekonomia, unitatearen gainerako ataletan gertatzen den bezala.

Azkenik, *Náufrago* filma ikusi ondoren egiteko jardueraren proposatzen du, eta, hala, unitatearen oinarri den individualismo metodologikoan sakontzen jarraitzen da. Horrekin, jardueraren ekonomikoaren izaera soziala ezkutatu nahi da, eta zientzia ekonomiko zehatz batek ezinbestean hartu behar du aintzat izaera hori.

Ekonomia errealitatean atalean, ekonomia aztertze garrantzitsuak diren kontu metodologiko batzuk baloratzeko jardueraren proposatzen da; adibidez, korrelazioaren eta kausalitatearen arteko desberdintasuna. Beste debate interesgarri bat ere proposatzen da, jardueraren ekonomikoaren antolatze dauden bide desberdinak azterketaren erdigunean kokatzeko; hor, nabarmena

Gaien analisia

2. UNITATEA: HAZKUNDE EKONOMIKOA

Sarrera

Hazkunde ekonomiko lelo moduan hartzen du unitateak, hausnartu ere egin gabe beti ote den **desiragarria** ekonomikoki haztea ala batzuetan hazkunde ekonomikoaren kalitatea ote den bilatu beharrekoa. Hitz batean, sarreran hazkunde ekonomiko goraiatzen da, eta, testuan aurrera egin ahala ere, ez da behin ere zalantzan jartzen. Eduki osagarri batean nolabait planteatzera iristen da, baina hausnarketa posible horiek anekdotikoak dira, eta testuaren osagarri hutsak.

Sistema ekonomiko buri buruzko zatia sistema ekonomikoaren definizio zehatzetik abiatzen da, eta gero esaten da ohiko hiru galderei erantzun behar zaiela: zer ekoitzi, nola eta norentzat.

balio ekonomikorik ez duten ondasunak eta zerbitzuak; esaterako, zaintza-lanak edo diru-ordainik gabeko borondatezko lanak.

Illo horretan, ez da gogoetetzen ondasun eta zerbitzu horiek gizartearentzat beharrezkoak direnez. Produktuaren balioa eskariaren eta eskaintzaren arteko orekaren bidez finkatutako prezioaren arabera zehazten da. Era berean, ez dira kontuan hartzen gure planetak dituen mugak baliabideei dagokienez. Azkenik, ekonomia-eredu horretako subjektuak homo economicus soilak dira, subjektu guztiz arrazionalak, beti aukerarik arrazionalenak egingo dituztenak. Baztertu egiten da agente ekonomikoaren alde emozionala, nahiz eta ebidentzia empirikoak gezurtatu egiten duen halakorik ez dutenik, ekonomia konduktualak ederki azaltzen duen bezala.

Horrez gain, EAM ereduak aurreko gaien aipatutako kontzeptuak barnebiltzen ditu: baliabide eskasia, aukera-kostua eta ekoizpen potentziala. Kontzeptu horien analisia aurreko unitatean egin da.

Azaltzen da hazkunde ekonomiko bi modutara gerta daitezkeela. Batetik, ekoizpen-faktoreak areagotuta; bestetik, produktibitatea hobetuta. **Hazkunde ekonomiko helburu hartuta ekoizpen-faktoreak areagotzeari dagokionez, kontuan izan behar da ekoizpen-faktoreak mugagabetzat jotzea ez datorrela bat garapen iraunkorarekin.** Bestalde, produktibitatea etengabe areagotzea ere bilatzen da, ekonomia eta kontsumoa etengabe haz daitezela. Aldiz, XXI. mendearen hasieratik produktibitateak desazkunde-prozesu bat bizi izan du herrialde garatuenetan.

Edukia

Azaldu ostean teknologia ezinbestekoa dela ondasunak eta zerbitzuak sortzeko, **Ekoizpen Aukeren Muga (EAM)** azaltzen da: ekoizpen-faktore eta ezagutza teknologiko jakin batzuetatik abiatuta, gizarte batek denbora-tarte jakin batean ekoitzi ditzakeen ondasunen eta zerbitzuen gehienezko kantitatea. **EAM eredu ekonomia sinplifikatzeko erabiltzen den eredu konbentzionala** da, ez baititu kontuan hartzen ondoren azalduko diren alderdiak. Horren arabera, ondasunak eta zerbitzuak dira ekonomikoki balora daitezkeen bakarrak. Alde batean uzten dira

Jarduerak



Ekonomiaren hazkundera neurtzeko tresnei dagokienez, BPGa aipatzen da, besterik ez. 8. unitatean, luze mintzatuko gara horri buruz.

Unitatean zehar, testu osagarri ugari agertzen dira. Horietako batek honela dio: "Nekazaritzako mekanizazioa erabakigarria izan da mendebaldeko herrialdeen gaur egungo ongizatea lortzeko; hain zuzen ere, industriako eskulan asko aske uzteaz gain, eta makinaren produktibitatea dela eta, etengabe hazten ari den biztanleria elikatzeo aukera ere eman du" (2.3 irudia). Azalpen horren behealdean, testu osagarri gisa berriz ere, azaltzen da zeri esaten zaion gaur egun 'ekonomia etikoa'; zehazki, haragi-kontsumoaren dilema etikoa aipatzen da. Haragi-kontsumoaren gaia egokia da eta oso interesgarria, baina, hazkunde ekonomikoak dakartzen kalteak hausnartu nahi badira, oso motz geratzen da. Are gehiago bi testu osagarri horiek bata bestearen atzean agertzen badira. Izan ere, **ikaslea pertzepzio faltsu batekin gera daiteke**: hazkunde teknologikoaren lorpen esanguratsua (ongizate-maila lortzea) vs arazo zehatz bat (haragi-kontsumo etengabea).

Sistema ekonomikoaren atalean, lehenik eta behin **kapitalismoa** aztertzen da, merkatu-ekonomia gisa identifikatuta, eta *kapitalismo* terminoa bi lauki osagarritan eta bi ariketatan baino ez da aipatzen. Kapitalismoa azaltzeko, **Adam Smithen esku ikusezinaren teoriatik abiatzen da**. Oinarri teorikoa bilatu arren, kapitalismoaren funtzionamenduari buruzko **azalpen oso pobre eta azalekoa** ematen da. **Ez dira gai nagusiak aipatzen**, hala nola sistema honetan ekoizpen-prozesuak duen helburua, ekoizpen-bideei buruzko jabetza-harremanak eta sistema horrek berezkoak dituen klase sozialak. **Estatuak sistema horretan betetzen duen zeregina** azaltzeko orduan, **ondasun estrategikoak hornitzeko erantzukizuna ematen zaio, botere-harremanetatik urrun dagoen** gai tekniko bat balitz bezala.

Sistema horren **abantaila** eta eragozpen nagusiak aztertzen dira, eta adierazten da elementu positiboetako bat dela **"pertsonen beren lehentasunen eta aukeren arabera kontsumitzen eta produzitzen"** dutela. **Kontsumitzailearen subiranotasuna erabat gainbaloratutako fenomeno da**; izan ere, enpresek baliabide ugari eta askotarikoak dituzte herritarren kontsumo-ereduetan eragiteko, zeinak, edozelan ere, errenta-maila eskuragarriak baldintzatzen baititu. Beraz, **ez da ulergarria errenta-mailak kontsumoari begira dakarren muga sistema horren abantaila gisa aurkeztea**, are gutxiago kontuan hartuta errenta erabilgarria subjektuen borondatearekin zerikusirik ez duten faktoreek zehazten dutela.


Gutxienez ere, bai esaten da ingurumen- inpaktua eta errenta-desberdintasuna sistemaren kontraesan nagusietako bi direla, nahiz eta ez diren aipatzen horrek zer krisi eragingo dituen. Beraz, kapitalismoaren funtzionamenduari buruzko ikuspegi simple eta azalekoa eskaintzen da.

Plangintza-sistema zentralizatua azaltzerakoan, **hura definitzen duen funtsezko elementua azpimarratzen da**, hau da, ekoizpen-bideen jabetza estatalizatua, eta hortik eratoritzen den jarduera ekonomikoaren antolaketa. Nabarmenezkoa da, bestalde, kasu honetan **mozkinen eta kostuen azterketa konparatiboa egin ordez muga nagusiak berrikusten direla**. Ez da inon ere aipatzen aztertutako eredu estalinistotik eratorritakoarekin bat datorrela eta sozialismoa kudeatzeko beste modu batzuk ere badirela. Alegia, nolabait ere, komunismoarekin lotzen dira, berez, SESBn agertu ziren arazoak.

Unitatearen amaieran, **ekonomia mistoa** azaltzen da: errealitatek erabat urrun dagoen eta inozoki sinplea den ikuspegi batetik, **sistema ekonomiko hori irtenbide bedekatu gisa aurkezten da**,

aurreko bi sistemen abantaila nagusiak ateratzea ahalbidetzen duena, haien mugak gaudituz. Hitzek hitz, aurreko bien "erdibidean" dagoela planteatzen da, "bien abantailak aprobeztatzeko" (38). Hala, Estatuak sistema ekonomikoan esku hartzen du, kapitalismoak

dituen arazoak zuzentzeko. Nola ulertu, orduan, ingurumen-narriadura etengabea eta gaur egun munduko ekonomiaren ezaugarri nagusi den desberdintasun gero eta handiagoa?



Egia esan, Estatuak esku hartzen du, baina bere jarduna kapitalismoaren ekoizpen-modu nagusiaren logikaren mende geratzen da. Berriro ere, errealitatearen bertsio goxoa aurkezten zaie ikasleei, munduko ekonomiak benetan bizi dituen tentsioak ezkutatzen dituen eta liburuaren azken unitatean sakonduko direnak.

Jarduerak

Ekoizpen Aukeren Mugari lotutako ariketa bat proposatzen da, artisau-teknologiaren eta teknologia berrien aldea azpimarratzeko. Ariketa hau baliagarria da ezagutarazteko teknologia berriei esker ekoizpen handiagoa lor genezakeela, nahiz eta, kasu honetan ere, aurretik azaldutako mugak ez diren aipatu ere egiten eta, **nolabait, artisau-teknologia gutxiesten** dela ondoriozta daitekeen.

3. behatokiari dagokion laukian **kapitalismoa eta sozialismoa alderatzen dira**, Gerra Hotzeko bi Alemaniari (demokratikoa eta federala) aplikatuta, eta, ondoren, bi Koreen datuak ere ematen dira. **Erabilitako metodoak ez du gutxieneko testuinguru historiko eta politikorik. 2.6 taulan baino ez da hausten unitate osoan nagusitzen den ikuspegi ahistorikoa.**

Ikasleei proposatzen zaien **dilema egokia da** lehen begiratuan, jabetza kolektiboari eta indibidualari buruzko eztabaida planteatzen zaielako, haien abantailari eta desabantailari buruz hausnar dezaten. Kasu honetan, **hautatutako filmak ikuspegi kritiko bat jasotzen du**, XX. mendearen bigarren erdian **bi Alemanietan ezarritako eredu ekonomikoak buruzkoa (Alemaniako Errepublika Demokratikoan eta Errepublika Federalean)**.

Gaien analisisia

3. UNITATEA: EKOIZPENA

Sarrera

Ekoizpenaren gaia jorratzeko, unitatearen sarreran lehenik eta behin kontzeptu batzuk azaltzen dira, hala nola ekonomia-efizientzia, eskala-ekonomia eta errendimendu beherakorren legea. Ondoren, **enpresen helburuei buruzkoak eta gizarte-erantzukizun korporatiboaren ingurukoak** argitzen dira. Egokia da kontzeptu horiek jorratzea, baina sarreran **eskainitako ikuspegia ez dator bat errealitatearekin.**

Edukia

Efizientzia ekonomikoa eta eskala-ekonomia ondo azalduta daude. Aldiz, ezinbestekoa da **errendimendu beherakorren legea** eguneratzea. Ekoizpen-faktore bat areagotzen bada, gainerakoak konstante atxikita, ekoizpen totalaren hazkundea gero eta geldoagoa izango da; une batean gora egiteari utziko dio, eta ez hori bakarrik: behera ere egin dezake. Lege hori Ricardoren teorian oinarritzen da. Teoria horrek nekazaritza-gizarte bati egiten dio erreferentzia, eta lurraren errendimendu beherakorrean du oinarri: lan gehiago eginda eta makineria gehiago erabilita ere, lurak askotan ez du fruitu gehiagorik ematen. Nolanahi ere, lege hori **ezin da ekarri gaur egungo gizartera, nekazaritza gure ekonomiaren parte txiki bat besterik ez baita.**

Enpresen helburuei dagokionean, lau helburu zehazten dira, eta aditzera ematen da lau helburuek garrantzia bera dutela. Ostera, **une bakar batean ere ez da aipatzen mozkinak maximizatzea lehenesten dela.** Hauek dira aipatutako lau helburuak: aberastasuna sortzea, errentagarritasuna areagotzea, ekonomia haztea eta

Jarduerak

Amaieran, **dilemari dagokion tartean, alokairu sozialari gehieneko muga ezartzeari buruzko eztabaida** proposatzen da, eta, kasu honetan bai, errealitatearekin bat egiten du. Hausnarketa hori oso egokia da, **etxebizitzaren sektorean ageri diren tentsioak** plazaratzen baitira;

gizartearekiko erantzukizunez jokatzeko. Esan bezala, enpresaren helburu nagusia –eta askotan bakarra– da mozkinak maximizatzea, errentagarritasuna handitzeko eta, beraz, kapitalari ahalik eta etekinik handiena ateratzeko. Hala ere, **kasu batzuetan enpresen helburuetako bat bada gizarte-erantzukizunez jokatzeko, nahiz eta helburu hori marketing-estrategia bat besterik ez den, bezeroak erakartzea asmo duena.** Are gehiago, **eskualde jakin batean aberastasuna sortzea ere izan daiteke enpresaren helburua, eskualde horretako politikariekin hala adostu badute eta horren truke zenbait abantaila lortzen badituzte.** Hitz batean, **enpresaren helburuak modu lerratuan zehazten dira.** Horrez gain, gizarte-ekimenez sortutako enpresak ez dira aipatu ere egiten, eta gune egokia litzateke horien ezaugarriak eta helburuak azaltzeko. Azkenik, errealitatea zintzoki islatuko bada, ezinbestekoa da adieraztea zenbat enpresak aplikatzen duten gizarte-erantzukizun korporatiboa.

gainera, tentsio horri erantzuteko, gizartean pil-pilean dagoen eztabaida bat jartzen da mahaiaren gainean da, hau da, **alokairu sozial** gehiagoren beharra eta horien **erregulazioaren atzean dauden interes askotarikoak** ezagutarazteko premia.

Gaien analisisia

4. UNITATEA: MERKATUA

Sarrera

Unitatea aurkezteko, ekonomia neoklasikoaren aldeko hautua egin da, jatorri ideologikoaren aipamenik egin gabe eta eskariaren eta eskaintzaren faktoreak abiapuntutzat hartuta, baita merkatu-orekaren nagusitasuna ere. Sarreran, irizpide gisa aurkezten dira ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko aurkakotasuna eta arrazionaltasun ekonomikoa, lehenago 2. unitatean egin den bezala. Hau da, agente berekoi immoralaren unibertsaltasuna, ez historikoa ezta soziala ere; hori da merkatu-ekonomiaren motorra.

Alfred Marshall ekonomialari ingelesaren teorian oinarritutako unitate hau abiatzeko, II. Mundu Gerran Alemaniako preso-esparru batean Gurutze Gorriak banatutako elikagaien inguruko adibidea erabiltzen da, eta ondasunen arteko truke-balioa dirurik gabeko merkatuaren adibide gisa aurkezten da.

Edukia

Unitate honek merkatuaren izaera, osagaiak eta funtzionamendua azaltzen ditu, lau atalen bidez. Lehenengo atala merkatuaren onurei buruzko azalpenekin abiatzen da, eta merkatua gizakion bizimodua erraztu duen erakunde gisa aurkezten da. **Esaten da merkatua tresna ezin hobea dela saltzaileak eta erosleak “ados jartzeko” eta “herrialde komunistak edo marxistak direla salbuespena”** (68), merkatuaren baliagarritasuna ukatzen dutelako, “botere zentral baten erabakien” aldeko hautua eginda. Baieztapen horren oinarri ideologikoa 2. unitatean aztertutako sistema ekonomikoen arteko aldeek osatzen dute.

Unitatean zehar, behin ere aipatzen ez den Alfred Marshall ekonomialari neoklasikoaren oreka partzialaren teoria laburbiltzen da, eta azaltzen da zein diren eskariaren eta eskaintzaren ezaugarriak eta faktoreak eta nola funtzionatzen duen kurben arteko orekak. Jakina denez, ondasunen eta zerbitzuen prezioak dira grafikoaren kurban aldaketak eragiten dituzten faktore bakarrak. Prezioen eraginaren bidez, eskaria eta eskaintza bitarteko kantitate batean finkatzen dira. Beste faktore batzuek ere baldintzatzen dute eskaria, eta, horien artean, hauek aipatzen dira: lotutako ondasunen prezioak, errenta erabilgarria eta lehentasunak; horien aldakuntzak eskari-kurba

lekualdatzea eragiten du. Era berean, ekoizpen-kostuak eta enpresen espektatibak aldatzeak eskaintza-kurba lekualdatzea eragiten dute.

Modak, irudi-marka, Interneten bidezko merkataritza... Ahalik eta adibiderik modernoena erabiltzen saiatu arren, azkenean, merkatu-orekari buruzkoa den hirugarren atalean, ezinbestean onartzen da bere-berez gertatzen dela. Hala, **Adam Smith ekonomialariaren totem fundazionala garatzen da, eta izaera matematiko eta sasizientifiko bat egozten zaio eskariaren eta eskaintzaren arteko topaketa magiko horri.** “Kontsumitzaile asko ase gabe geratuko direla” esaten da (4.1 irudian), inolako irakurketa sozial edo moralik egin gabe, eta prezioak igotzea dela “gehiagizko eskaria” konpontzeko bidea. Unitatean zehar ez da bestelako azalpen zehatzik ematen. Sinple bezain perfektua, ez zaie hitz bat bera ere eskaintzen merkatua sortu eta garatzeko historian zehar gertatu behar izan duten gorabehera politiko eta militarrei.

5. unitatean jorratuko diren merkatu moten inguruan ezer gutxi esaten da, eta ez da aipatzen ondasunen eta zerbitzuen arteko desberdintasunik. 7. unitatearen hasieran azaldutako ondasun motak ere ez dira aipatzen, nahiz eta garrantzitsua den horien berri izatea. 7.1 taulak

erakusten duen moduan, kontsumo-garaian lehiakideak edo/eta elkar baztergarriak ez diren ondasunak ez dira era egokian ekoizten eta banatzen merkatuen bidez. **Ondasun publikoak, komunalak, naturalak edo guztiz errepikagarriak direnak (esaterako, musika eta zinema) ez dira aipatzen, eta, halere, adibide baliagarriak izan daitezke, erakusten baitute merkatua sarri ez dela batere erakunde egokia.** Merkatuak ez dira egokiak ekonomiaren eta bizitzaren esparru batzuk antolatzeke, eta ugaritasunaren eta eskasiaren artean beti oreka-puntu bat dagoela argudiatzea da munduaren izaera historiko eta soziala ukatzea, eta ukatzea baita gizakiok eta animaliek askotariko beharrak dauzkagula.

Alderdi horiek hurrengo unitateetan aipatzen diren arren, merkatua aurkezten duen unitate honetan ez da eskaintzen haren egokitasuna aztertzeke biderik. Aniztasun hori prezio-elastikotasunaren ingurukoa den azken atalean baino ez da erakusten; zehazki, ondasunen eta zerbitzuen arteko aldakortasunari buruzko azalpen labur eta abstraktu bat ematen da. Hori bai, esaten da ogiaren eta zinema-txartelen prezioek ez dutela eragin bera eskaintzan eta eskarian, eta esan daiteke baieztape hori abiapuntu bat dela hamaika merkantziak osatutako ekonomia kapitalisten konplexutasunean sakontzeke. Hurrengo unitatean, merkatu mota desberdinen funtzionamenduak jabetzeke beste urrats batzuk ematen dira.

Jarduerak

Sandwicha, bideo-jokoak, diesel autoak, erlojuak, merkealdiak, artea... Askok dira unitatean zehar proposatutako jarduerak eta hausnarketara bideratutako ariketak, eta orokorrean erabilgarriak dira merkatuaren azalpen neoklasikoaren oinarrian dauden kalkuluak egiten ikasteko. Era horretan, merkatuaren funtzionamendu teknikoa baino ez da aztertzen, ondasunen prezioen eta kantitateen gaineko eraginak kuantitatiboki aztertzeke helburuarekin.

Hori izan zen, azken finean, XIX. mendearen amaierako iraultza marjinalistaren edo ekonomiaren eraldaketa neoklasikoaren helburu nagusia: Ekonomia Politikoari abizena ezabatzea, eta Ekonomia "zientifikoa, ez-historikoa, unibertsala" metodo kuantitatiboaren eta matematikaren bidez garatzea.

Illo berari jarraitzen diote amaierako ariketek, zeinak erabilgarriak baitira salerosketen bidezko prezio-aldaketak lantzeke. Bestalde, unitatearen azken jarduera egokia da merkatu zehatz baten gorabeherak ulertzeke, eta orrialde oso bat eskaintzen zaio nekazaritzaren sektoreko prezio txikien atzean dagoen egiturazko arazoari. Era berean, merkatuaren beste azalpen sinple batekin amaitzen du, sendagaien prezioen ingurukoa. Azkenik, tratamendu medikoen eta konpainia farmazeutikoen adibidean, herrialdeen arteko aldeak eta prezioa handia ala txikia izateak dakartzan ondorio kontrajarriak erakusten dira. Unitatearen azken aurreko jarduerak gai horren inguruan hausnartzeko aukera ematen du.

Gaien analisisia

5. UNITATEA: MERKATU-MOTAK

Sarrera

Merkatu-motak zehazteke unitate honetan, ekonomia kapitalisten konplexutasunaren oinarri teorikoak azaltzen dira. Lehenik eta behin, **merkatu-ekonomietan baldintza desberdinetan garatzen diren produktu-ekoizpen eta banaketa-sistemak irudikatzeke osagaiak aurkezten dira, merkatuaren ezaugarriak eta lehia-motak azalduz.** Lehia perfektua, lehia monopolista, oligopolioa eta monopolioa bereizten dituen unitate hau abiatzeke, zera zehazten da: "Enpresek asko errazten dute gure bizimodua"; halere, beste hau ere onartzen da: "Dena errazagoa izango litzateke baldin eta erosketak egitean eta kontsumo-erabakiak hartzean ardura handiagoz jokatuke bagenu" (86). Instagram erabiltzen du merkatu-aniztasunaren adibide gisa, baita sarearen eta publizitatearen bidez agertzen diren zaletasun eta joeren adibide moduan ere. Halere, "Sakelako telefonora bidaltzen dizkizuten iragarkietan, ez duzu –merkatuari– ihes egiteke modurik", dio amaieran.

Edukia

Merkatuaren ezaugarri nagusien bidez lehia-motak gauzatzen dira, ondasun edo zerbitzu baten ekoizpen- eta banaketa-baldintzak sortuz. Merkatu bakoitzaren parte-hartzaileen arteko harremanak sortzen dira, eta, sartu eta irteteko hesiak direla medio, saltzaileen eta erosleen arteko lehia-egoerak garatzen dira. Eskala-ekonomia, markak, kostuak, leialtasuna, inbertsioak... **Faktore askok mugatzen dute "lehia askearen" egoera hipotetiko ezin hobe horretara iristea. Izaera ideal hori irudikatu eta gero, lehia perfektuko merkatua, perfektuak ez diren egoera monopolista eta oligopolisten egoerak ere azaltzen dira.**

Lehia perfektuko merkatuaren ezaugarriak ezagunak dira: enpresa asko daude, prezio-onartzaileak dira, produktu homogeneoak eskaintzen dituzte, lehia handia dago, gardentasuna, baita sartu eta irteteko askatasuna ere, eta "ez dago lege-mugarik jarduera egin ahal izateke". Egoera estatiko ideal perfektu horrek fase-aldaketak izaten ditu, saltzaile- eta erosle-kopuru zein prezio-dinamika baldintzatzen dituztenak, betiere egonkortzeke eta enpresei aski etekin ziurtatzeko helburuekin. Tokiko azokak jartzen dira lehia perfektuaren adibide gisa,



lehiaren eragin suntsitzaila eta diziplinatzailearen irudi bukolido bat eginez. Uraren merkatua da atal honetan jarritako beste adibidea (5.2 irudia), eta pribatizazioari ez zaio hitz bat bera ere eskaintzen.

Egoera ideala atzean utzita, hurrengo ataletan sakon aztertzen dira ohikoenak diren merkatu-motak. Horien artean, **lehia monopolista** da ohikoena. Enpresa asko daude merkatuan, produktua bereizteko ahalegin etengabea, publizitatearen bitartez zein maila lokalean lortutako trebetasunari eta kokapenari esker. Publizitateari eskaintako azalpen eta adibideetan ez dira erakusten hark dituen kostu handien eragin sakonak, batez ere ekoizpen-faktoreen eta, bereziki, soldaten gainean. Esaten da maila lokalean lehia monopolistak ez duela publizitatearen beharrik, eta kasu horretan ere ez dira kontuan hartzen kapitalaren eta enpresen ardurak. Hasieratik esaten da ez dutela bilatzen ongizate kolektiboa, baizik eta merkatu-kuotak. 5. Behatokian "fuet Espetec" marka berritzaileak merkatuan erdietsitako arrakasta azaltzen da, eta adibide ona da; izan ere, lehia monopolistako egoera batean egon arren, enpresa katalan honek merkatuan bereiztea lortu du.

Hurrengo atalaren helburua da elkarreragin-maila handiko egoeretan enpresa gutxi batzuek osatutako **oligopolioak** azaltzea. Adam Smithek eman zuen oligopolioek eragiten dituzten arazoak berri, eta unitate honetan azaltzen da "Lehiaren Defentsarako Legeak" lehiakideen arteko adostasunak eta akordioak debekatzeko dituela. Horretarako, planifikazioaren onurak baliogabetzen dira, eta, horrela, 2. unitatean aurkeztutako sozialismoarekiko kritikak indartzen dira. Ekonomia planifikatua akatsez bete dago; ez du pizgarririk, eta erabat burokratizatuta dago. Ziurgabetasuna, prezio-gerrak, ongizatearen galera, kartelen sorrera... oligopolioen garapenak arazoz josiak izaten dira beti. Aipagarria da 6. Behatokian ohiko presoren dilema erabiltzen dela, argudiatuz guztiontzako

onuragarriak diren irtenbideak lortzen ezinezkoak edo hausten errazak direla. Aurretik emandako hitzak ez du balio merkatuan, eta ez da posible irtenbide kolektibo egokiak bilatzea. Hala, joera berekoia izatearen onuraren eta elkarlanean jarraitzeak duen galera-arriskuaren bidez Mikroekonomiaren oinarriak ezartzen dira.

Monopolioa da unitatean aurkeztutako azken merkatu-mota. Eskusiba natural, produktibo edo legal baten bidez, merkatu jakin batean enpresa bat eta bakarra da erabateko nagusia. Monopolio-egoeren iturri nagusi gisa patente-sistema eta sektore publikoaren antolamendurako gaitasuna aipatzen dira. Horri dagokionez, Intel eta Google dira patente bidez lortutako monopolioen adibiderik argienak, eta 7. Behatokian gogorarazten da Europar Batzordeak zigor handiak ezartzen dizkiola Googleri.

Publikoki antolatutako monopolio naturalak irudikatzeke, berriz, uraren, energiaren eta trenaren adibideak erabiltzen dira. Oso adibide egokiak dira, bidea ematen baitute merkatua tresna funtsezkotzat ez duten hiru sektorek duten antolakuntza planifikatuaren beharra ulertzeko.

Jardueren helburua da unitatean zehar merkatu-moten inguruan emandako azalpenak sendotzea. Lehenengo jardueran, merkatu-kuotak kalkulatu dira. Bigarren jardueran ebatzian, berriz, merkatu zehatz batzuetan sartzeko zailtasunak erakusten dira, produktu eta marka ezagunen bidez. Beste jardueran luze batean, tomateen merkatua aipatzen da, urte-sasoia eta kalitate desberdinen eragina kontuan izan barik. Aipagarria da 8. jardueran proposatzen den ariketa, esaten baita solariumak eta delicatessen erako dendak zabaltzen ari diren une berean ile-apaindegiak ixten ari direla. Monopolioen atalean, 1. unitatean aipatu dugun urritasunaren legean sakontzen da, Robbins sortzailea aipatu barik. 5. jardueran ebatzi horretan monopolio- eta oligopolio-egoeretan sor daitezkeen eskasia artifizialak aztertzen dira, eta, berriro ere, ez dira aipatzen merkatu-ekonomietan gertatzen den bazterketa eta esplotazioa.

6. UNITATEA: LAN-MERKATUA

Edukien hautaketak egokia dirudi, lan-merkatuaren elementu nagusiak lantzen baitira: soldadak, produktibitatea, langabezia eta lan-politika. Beharbada egokia litzateke prekaritatea ere lantzea, azken hamarkadetan hori bilakatu baita enpleguaren ezaugarri nagusia.

Hasierako sarreratxoan, argi eta garbi esaten da zein izango diren lan-merkatuaren analisiaren oinarriak. **Giza kapitalaren teoria aipatzen da, eta soldataren ordainketaren inguruko azalpen bat iradokitzen da, nolabaiteko justizia distributibo batean oinarritua, esaten baita "zenbat eta produktiboagoa izan, gehiago irabaziko duzula" (106. or.).** Planteatzen da produktibitatea izango balitz bezala soldataren faktore erabakigarri nagusia, eta hori langilearen borondatearen araberkoa izango balitz bezala. Atal honen amaieran

Unitatearen amaierako ariketek merkatu-moten inguruan azalduko aplikatzeko aukera ugari eskaintzen dituzte. Horretarako, enpresa ezagunak edo kasu generikoak erabiltzen dira, merkatu-egoera anitzetan garatzen diren ezaugarrien inguruan hausnartzeko. *Ekonomia errealtatean* atalean lehia monopolistaren adibide oso partikular bat hautatu da, animazio-filmen ekoizpenarena, bi emakume gidatutako enpresa adibide gisa hartuz. Ildo beretik, pirateriaren dilema planteatzen da, eztabaida pizteko helburuarekin. Planteamendua bera oso bideratuta dagoela esan genezake, erruduntasunezko hitzak erabiliz aurkezten baita; besteak beste, esaten da legez kanpoko deskargaren ondorioz "logikoa dela gero eta obra gutxiago sortzea". *The Truman Show* pelikula proposatu eta gero, unitatea alabari mugak ezartzen dizkion aitari buruzko parodia komiko batekin bukatzen da.

esaten denak ere langabeziaren analisiaren oinarri den ikuspegiari buruzko informazio garrantzitsua ematen digu: "Norberaren erantzukizuna da lan-merkatuaren joerak eta aukerak identifikatzea, bizitzan izango duen lan-proiektua diseinatzea". **Horren arabera, langile bat langabezian edo egoera prekario batean egotea ez da gizartearen arazoa, baizik eta langileek beren aldetik hartutako erabaki txarren emaitza.**

Gaiari hasiera emateko eskaintzen den testuan honi buruzko hausnarketa bat dago: nola baldintzatzen duen prestakuntza-mailak langileen posizioa lan-merkatuan. Gogoeta hori egokia da, horren bidez oso gertukoa den errealtate bat aurkezten baitaie ikasleei. Halere, diru-sarrera handiko langileek osatutako elitearen kasua ere aztertzen da, eta hori ez da lan-merkatuaren funtzionamenduaren erakusgarri.

Unitatearen hasieran, lan-merkatuaren berrikuspen bat egiten da, ohiko ikuspegi batetik, eskaintzaren eta eskaeraren analisi orokorra aplikatuta. **Funtsezkoa den zerbait onartzen da: soldata da familia gehienen diru-iturri nagusia. Bestalde, azpimarratzen da soldata-maila dela lan-eskaintzan eragiten duen faktore nagusietako bat**, eta esaten da bi aldagaien artean erlazio zuzena dagoela. Hau da, soldata-maila txikia bada, lan-eskaintza ere txikitu egingo da. Nola uler daiteke fenomeno hori, baldin eta lehenago esan bada familia gehienak soldataren menpekoak direla?

Lan-eskaera baldintzatzen duten faktoreak berrikustean ere soldata-maila aipatzen da; kasu horretan, azpimarratzen da alderantziko erlazio bat omen dagoela soldaten eta lan-eskaeraren artean, baina ebidentzia empirikoa ez dator bat baieztapen horrekin. Ulergarria da hori ere unitatean gehitu nahi izatea, argudio horrekin justifika baitaiteke zergatik eusten zaien soldatei enpleguaren sorrera sustatzeko; hau da, argudio hori baliagarria da kapitalaren interesentzat. **Nolanahi ere, ebidentzia empirikoa erakusten duena da enplegu-sortzaile diren fase hedakorrek dirauten artean izan ohi dutela soldatek goranzko joera.**

Jarraian, onartzen da lan-merkatuak ez duela funtzionatzen lehia perfektuaren kondizioekin, baina horri buruz ematen den azalpena erredukzionista da oso: esaten da lan-merkatuaren funtzionamendu erreala estatuaren esku-hartzeagatik eta eskaintako ondasunaren diferentziazioagatik aldentzen dela lehia perfektutik. Gainera, estatuaren esku-hartzeari buruzko azalpena gutxieneko soldaten azterketan sartzen da; ez dira aintzat hartzen esku hartzeko elementuen askotariko multzoak, eta ez da aipatzen langileen babes sozialerako erabilgarriak diren baliabide guztiak langile-mugimenduaren lorpen sozialen ondorio direla. Bigarren elementuari dagokionez, eskaintako ondasunaren bereizketa, ez da mugatzen prestakuntza-mailara; beste elementu batzuk ere txertatzen dira, hala nola generoa,

arraza eta abar. Halere, horren inguruko soldata-desberdintasunak azaltzen dira, eta planteamendu hori aski pobrea da, ez baitu kontuan hartzen ez klase sozialen arteko indar-korrelazioaren intentsitatea, ez estatuaren esku-hartzearen benetako esanahia, ez adar produktiboen askotariko dinamismo-mailak.

Ondoren esaten da soldatak produktibitatearen menpekoak direla, hau da, "produktiboagoak direnei enpresek gehiago ordaintzen diete, haiek ere mozkin handiagoak eskuratzen dituztelako". Pentsa liteke azalpen hori norbanakoari



dagokiola; alabaina, giza kapitala produktibitatearen faktore erabakigarritzat jotzeaz gainera, produkzioan erabilitako ekoizpen-ondasunak eta aurrerapen teknikoaren maila ere gehitu dira, eta horiek ez dira langilearen borondatearen arabekoak.

Testuan soldataren genero-arrakalari buruzko informazioa ematen da, baita soldatapekoek beren prestakuntza-mailaren arabera lan-merkatuan duten posizioari buruzkoa ere. Baina informazio hori oso laburra da, lauki osagarrietan eskaintzen baita.

Langabeziadefinitueta langabezia mota desberdinak aipatu ondoren, langabeziaren kausei buruzko debatea dator, eta proposamen neoklasikoaren eta keynesiarraren arteko desberdintasunak azaltzen

marxista edo eskola erradikala, garrantzitsuenetako bi baino ez aipatzearen. Gaur egun, beste ikuspegi horiek ez dute merezitako aintzatespenik, eta hori ez dator bat haien ekarpenen azalpen-gaitasunarekin;. Aitzitik, aztertu behar da zer paper jokaten duen gizarte-klaseen arteko interes-konfrontazioak gizartea ezagutzeko eran.

Enpleguaren inguruko estatistikei buruzko atala aski osatua da; lan-merkatuaren funtzionamendua ulertzeko adierazle nagusiak azaltzen ditu, eta informazioa eskuratzeko bide nagusiak bereizten. Gainera, adierazle horien aplikazioa ulertzeko adibideak ere ematen dira. Halere, prekaritatearen intzidentzia-maila ulertzeko adierazleak falta dira, hala nola behin-behinekotasunaren tasa eta azpienpleguarena.

Enplegu-politikei buruzko atalean, **langabeziari aurre egiteko gobernuek hartzen dituzten neurri nagusien ezaugarriak eskaintzen dira xeheki**, baina ez dira aipatzen langabeziari irtenbide bat emateko dituzten mugak. Deigarria da egokitze jotzea azken urteetan gobernuek autoenpleguari erakutsitako babesa, era horretako enplegua bultzatu izanaren benetako arrazoia ezkatuta: azken hamarkadetan, kapitala soldatapekoen kontratazioari lotutako kotizazio sozialak murrizteko eskatzen ari da; langile autonomoak enplegatuta, kotizazio horiek ez ordaintzea lortzen dute.

Amaitzeko, enpleguaren joerei eta aukerei buruzko atal bat dago. Oso orokorra da, eta ez die eduki esanguratsurik eskaintzen ikasleei.

dira. Liburuaren beste zati batzuetan ez bezala, honako honetan ez zaie teoria ekonomikoari buruzko kontsentsu faltsu bat aurkezten ikasleei, eta eskertzekoa da hori; hala, auzi ekonomikoei buruzko ikuspegi kontrajarrien berri izango dute. Halere, **eztabaida hori modu partzial eta sinplifikatuan aurkezten zaie, alde batera uzten baitira pentsamendu ekonomikoaren beste korrante batzuk**, lan-merkatuaren funtzionamendua ulertzeko ekarpen garrantzitsuak egin dituztenak, hala nola korrante

Ariketen atalean kasu erreal batzuk planteatzen dira, unitatean eskuratutako ezagutza aplikatzeko. Egokia da hori, lagungarria baita ikaskuntzaren izaera funtzionala sustatzeko: soldata-desberdintasunak (8, 9), langabeziari aurre egiteko neurriak (12), lan-merkatuko posizioaren araberako biztanleen sailkapena (18, 19, 20). Albisteen titularrak ere eskaintzen dira (25), gelan horiei buruz hitz egiteko.

Ekonomia errealtatean atala ere ildo beretik doa. Kasu honetan, informazio estatistikoa ematen da, eta horri buruzko galderak egiten dira. Jarduera honetan, lan-merkatuaren analisiari lotutako tasen interpretazioa bultzatzen da; gainera, gertuko iturri estatistikoak ezagutzeko aukera ematen dio ikasleari, baita gertuko errealtatearen enplegu-joerak ere.

Gai honetan, dilema esanguratsu bat planteatzen zaie ikasleei, gaur egun interes handia pizten duena: mekanizazioak enpleguaren gainean duen inpaktua, zeina bereziki garrantzitsua bilakatu baita azken urteetan, robotizazioaren hazkundearekin. Aurrerapen teknikoa aurrerabide-iturri gisa uler daiteke, baina kontraesan garrantzitsuak ere baditu gizarte kapitalistetan, eztabaida honen bidez azter daitezkeenak.

Azkenik, *Los lunes al sol* filma ikusi ondoren egiteko jarduera batzuk proposatzen dira. Film hori egokia da zenbait puntu lantzeko: lan-gatazkak, langabeziaren ondorioak eta jarduera ekonomikoa nazioartekotzearen inpaktua.

7. UNITATEA: ESTATUAREN EGINKIZUNA

Gai honetan azaltzen da **estatuak ekonomian esku-hartzen dutela, estatuaren hutsegiteak zuzentzen saiatzeko**. Esku-hartze horietan hartutako neurriek, oro har, politika makroekonomikoa osatzen dute, eta, beraz, unitate honetan politika makroekonomiko desberdinak esplikatzen dira. Testuan zehar ikuspegi keynesiar hutsa azaltzen da. **Keynesianismoak** ekonomia kapitalistaren hutsegiteak gainditu daitezkeela proposatzen du, sistema bera aldatu ote daitekeen hausnartu barik. Keynesianismoa II. Mundu Gerraren eta 1929ko krakaren osteko garaian sortu zen, hau da, 1950 eta 1970eko hamarkaden bitartean. **Garai iluna izan zen, ekonomia eta gizartea erabat suntsituta baitzeuden. Errautsetatik jaio zen ekonomia eta gizarte bat izan zen, eta, hori dela eta, hazkunde ekonomikoa handia gertatu zen.** Urrun geratu dira hamarkada haiek. Gaur egungo gizarteak beste ezaugarri eta beharrez batzuk ditu, hain zuzen ere, **dinamiktasun ekonomikoa handia dagoelako eta planetaren baliabideak agortzeak daudelako**. Kapitalismo basatiko garai hauetan kontsumo etengabea gailentzen da, horrek dakarren hazkunde ekonomikoa zentzugabe eta jasanezinekin batera. Beraz, argi eta garbi, **sistema-ekonomikoaren oinarriak irauli egin** behar dira; lehenik eta behin, ekonomia jasangarriago baten alde. Beste parametro batzuk kontuan hartzen baditugu –hau da, ekonomia justuagoa, solidarioagoa eta berdintasunean oinarritua–, sistema ekonomikoa oinarriak iraultzen jarraitu behar dugu. Are gehiago, **COVID-19aren krisi** honek erakutsi digu aldaketa ezinbestekoa dela. Gaur egungo gizarte honen ezaugarriak eta arazoak aipatu ere ez dira egiten, eta ez da egiten **merkatuaren hutsegiteen gaineko hausnarketarik**.

Merkatuaren hutsegite hauek azaltzen dira:

Ondasun ez-errentagarrien eskasia: errentagarriak ez direnez, ekimen pribatuak ez du interesik ekoizteko, eta, herrialdearentzat beharrezkoak direnez, estatuaren esku geratzen dira.

Kanpo-eraginak:

- **Kanpo-kostua.** 2.a onela definitzen da: jarduera ekonomikoa batek eragiten dien kostua ez jardueraren egileei, baizik eta gainerakoei. Enpresak ez baditu kostu horiek bere gain hartzen, esaten da ez diela egoki adierazten kontsumitzaileei produktuaren prezioa. Hori guztiz zuzena eta egokia da. Hausnarketarako testu osagarri batean zera adierazten da: "Ingurumen-politikako neurri guztiek gaitz erditzat jotzen dute kutsadura: izan ere, ez dute kutsadura erabat desagerrarazteko neurririk hartzen, eta jada egindako kalteagatik ordain ekonomikoa lortzen saiatzen dira, ez besterik". Hemen harago doa, eta esaten da kanpo-eragin horiek konpentsatzeko kalte-ordain bat ordaintzeak ez duela arazoa konpontzen. Ingurumen-ekonomiari kritika zuzena egiten zaio.

- **Kanpo-onura** moduan planteatzen da **teknologia eta berrikuntzak merkeagoak** izatea. Argudio horrek **talka egiten du berriz ere garapen jasangarriarekin**.

- **Errentaren banaketa desorekatua.** Teoria neoklasikoa hartzen da **abiapuntutzat**. Hau da, gizartean errenta-banaketa desorekatu bat dago, eta banaketa hori orekatzeko neurriak hartu behar dira. Ez da planteatzen **hasierako banaketa desorekatua** ezabatzea, baizik eta behin gertatu ondoren hari irtenbide bat bilatzea.

- **Lehia ez-perfektua.** Aipatzen da lehia ez-perfektua egoteak **enpresek gehiegikeriaz jokatzeko** eragiten duela. Hori gainditzeko, lehia askearen aldeko ikuspegia jorratzen da, eta proposatzen da hori babesteko duten erakunde publikoak sortzea. Baina argi dago horrek ez duela inolaz ere lehia ez-perfektua saihesten, hainbat

dira-eta politikari eta enpresa pribilegiatuen arteko interes amankomunak eta ustelkeria-kasuak. Azken horiek aipatu ere ez dira egiten.

- **Ziklo ekonomikoaren ezegonkortasuna.** Aipatzen da ekonomiaren faseak hauek direla: hedaldia, goieneko aldia, atzeraldia eta depresioa. Ez da planteatu ere egiten ekonomia egonkorrago baten aukera. Teoria marxistak errenta-banaketa desorekatuarekin lotzen du ziklo ekonomikoa horien ezegonkortasuna, eta hori ez da aipatu ere egiten testuan.

Era berean, gogoratu beharra dago ezen, nahiz eta erregulazioa eta estatua merkatuaren hutsegiteak zuzentzeko gakoak diren, gaur egungo merkatu internazionalan korporazio transnazional handien eta finantza-instituzioen interesak gailentze direla. **Hori dela eta, estatuak boterea galtzen dute erregulazio etikoak egin ahal izateko, korporazio transnazional handien mesedetan.**

Merkatuaren hutsegiteak zuzentzeko, politika makroekonomikoak proposatzen dira:

Moneta-politika eta zerga-politika: hurrengo gaietan azaltzen dira sakonago.

Kanpo-politika. Inportazioak eta esportazioen gainean eragina duten neurriak.

Errenta-politika. Aipatzen da prezioen egonkortasuna eta inflazioa kontrolatzea dituela helburu. Esaten da baita estatuak funtzionarioen soldatetan eragiten duela eta enpresei gutxieneko eta gehieneko soldatei buruzko gomendioak ematen dizkiela. Aipatu ere ez dira egiten gaur egungo gizarterako baliagarriak diren proposamenak; adibidez, lan-banaketa eta lanaldiaren murrizketa: 35 ordu astean, zaintza-lanak banatzeko aukera emango lukeena. Era berean, soldadak ere igo behar dira, azken hamarkadetan jaitsi egin baita soldatek BPGd-arekiko duten pisua.

Gai horri lotuta, *behatokia* atalean pentsio-sistemaren aldaketaz mintzo da; hain zuzen ere, erretiro-adina atzeratzeaz. Ariketa hori oso interesgarria da gaur egungo pentsio-sistemaren arazoak ezagutarazteko.

Azkenik, zenbait **adierazle ekonomiko** proposatzen ditu ekonomiaren **termometrotzat**: KPIa, BPGd-a, jarduera, langabezia- eta okupazio-tasak eta, azkenik, interes-tasak. Adierazle horiek ekonomiaren norabidea neurtzen

dute, eta horiek dira ekonomia bideratzeko kontsultatzen direnak. Egokiak diren arren, **hainbat alderdi ez dituzte neurtzen**, hala nola muga ekologikoa, errenta-banaketa.... **Ekonomia bere osotasunean neurtu nahi bada, ezinbestekoa da adierazle osagarriak erabiltzea.**

Zinema-proposamena atalean *Dilema* filma proposatzen da, non korporazio handien interesez eta enpresa-etikaz hausnartzen baita.

3. jardueran, keynesianismoaren politika ekonomikoak bere testuinguru historikoan kokatzen dira. Hau da keynesianismoaren testuinguru historikoa aipatzen den lehen aldia, eta testuinguru hori ezinbestekoa da interpretazio zehatzago bat egin ahal izateko.

8. UNITATEA: ADIERAZLEAK ETA OREKA MAKROEKONOMIKOA

Lehenik eta behin, esan beharra dago akats bat dela BPGd-aren hazkundera ekonomiaren helburu nagusitzat ezartzea. Azken garaiotan, **BPGd-aren hazkundera etengabea obsesio bihurtu da, eta horrek ekoizpen neurrigabea eta mugagabeko kontsumoa dakar**

Testuan irakasten da BPGd-a kalkulatzeko gastuen, errentaren eta balio-erantsiaren metodoaren bidez. Horrez gain, kontabilitate nazionala azaltzen da, baita BPGd nominalaren eta errearen arteko aldea ere. Aukeratutako edukia egokia da. Era berean, **BPGd-aren mugak** zehazten dira, hauexek:

- Ez ditu kontuan hartzen ekonomia batek ekoizitako ondasun eta zerbitzu guztiak; esaterako, ezkutuko ekonomia.

berekin. Horrez gain, **BPGd-ak hutsune ugari ditu, eta beharrezkoa da beste adierazle batzuk** ere kontuan hartzea, ekonomia bere **osotasunean** neurtu ahal izateko.

- Ez ditu kontuan hartzen ondasunak eta zerbitzuak trukatzeko garaian dirurik erabiltzen ez duten jarduerak.
- Ez ditu kontuan hartzen kanpo-eraginak.
- Ez du neurtzen nola banatzen den aberastasuna biztanleen artean.
- Ez du neurtzen ekoizitako ondasunen eta zerbitzuen kalitatea.

Muga horiez gain, **beste batzuk ere aipatu beharko lirateke:**

- **Planetaren mugak.** Eta, horri dagokionez, aipatu behar da baita badela **desazkundearen** aldeko mugimendu bat, Serge Latouche-k gidatzen duena.

- **Ekonomia feminista Bizitzaren zaintza eta erreproduktzioa** ez dira kontuan hartzen BPGd-a kalkulatzeko. Lan horiek ikusezin bihurtuta daude. Mugatzat hartu ez arren, testuaren alde batean aipatzen dira etxeko lanak. Hala ere, azpimarratu behar da izkina batean komentatuz ez diotela beharrezkoa den garrantzia ematen.

BPGd-az gain, **Giza Garapenaren Indizearen taula bat proposatzen da.** Atal horretan aipatzen da BPGd-ak ez duela neurtzen bizi-kalitatea, eta hori dela eta badirela beste indize batzuk, hezkuntza-maila eta bizi-itxaropena neurtzen dituztenak. Aipatzen da Giza Garapenaren Indizea sortzen dela aldagai horiek eta erosteko ahalmena ere barneratuz. Indize hori Behatokia atalean ere azaltzen da. Edonola ere, **beste adierazle horiek testuan bertan aipatu beharko lirateke, dagokien garrantzia emanez.**

Giza garapenaren indizea aipatzeaz gain, beste hainbat adierazle ere aipatu beharko lirateke, hala nola, Giniren indizea, aztarna ekologikoa, gutxieneko gastu soziala eta emakumeen txirotasun-tasa.

Beste adierazle horiek guztiak erreferentzial bihurtzeak estatuen eztabaida sakon bat eskatzen du. Horren harira, politika publiko berriak diseinatu behar dira, beharizan sozialak bermatuko dituztenak: osasuna, hezkuntza eta zerbitzu sozialak.

Testuak oreka makroekonomikoa azaltzen jarraitzen du. Horretarako, eskari eta eskaintza agregatua eta horien kurbak definitzen dira. Ondoren, eskari agregatuaren aldagaiak azaltzen dira: kontsumoa, inbertsioa eta aurrezkiak.

Hausnarketara zuzendutako ariketa batean zera planteatzen da: gure kontsumoa arrazoizkoa da?

Atal honetan azaltzen da kontsumitu ahal izateko gehiegi zorpetzen garela. Era berean, inbertsioa, inbertsio-motak eta horiek baldintzatzen dituzten faktoreak azaltzen dira, eta, azkenik, **inbertsioaren eragin biderkatzailea.** Azken kontzeptu hori, berriz ere, Keynesen teorian oinarritzen da. Aurrezkiari dagokionez, familien zein herrialdeen aurrezkiak aztertzen da, baita kontsumitzaile eta aurrezteko joera marjinala ere.

Dilema izeneko atalean, **"Beltzean lan egin ala ez?"** eztabaidatzen da. Beltzean lan egitearen atzean dauden arrazoi desberdinak aztertzen dira.

Zinema-proposamena: Qué bello es vivir!. Film horrek BPGd-aren mugez solastatzeko aukera ematen digu.



Gaien analisisia

9. UNITATEA: ESTATUAREN KONTUAK

Sarrera Estatuaren kontuak aipatu aurretik zerga-sistema azaltzen da. Proposatzen den egitura aproposa da; lehenengo azaltzen da nola lortzen dituen diru-sarrerak estatuak, eta gero estatuaren aurrekontuko gastuak eta sarrerak zehazten dira

Edukia Zerga-politikari dagokionez, ahalmeneko zerga-politikak aipatzen dira, hau da, gobernuek aplikatzen dituzten politikak sarreretan edo gastuetan eragin nahi dutenean. Hauek jotzen ditu zerga-politika nagusitzat: obra publikoko programak, enplegu- eta prestakuntza-planak, transferentzia-programak eta zerga-tasen aldaketa. **Transferentzia-planei dagokienez, langabezia-prestazioak eta erretiro-pentsioak soilik aipatzen dira. Harritzekoa da, azken urteetan zalaparta handia sortu baitu oinarritzko errenta ezartzeak.** Egonkortzaile automatikoez ere badihardu, eta hurrengo hauek jotzen ditu nagusitzat: zerga proportzionalak, zerga gehikorrek, gizarte-kotizazioak eta langabezia-prestazioak.

Azken hamarkadetan, gastu beharrianak handitu egin dira, eta zergen gehienezko tipoak, berriz, jaitsi. Zerga batzuk ezabatu eta aberastasunaren gaineko zerga-ordainketa oro har jaitsi egin den arren, aipatu ere ez da egiten. Zergen jaitsiera progresibo horrek murriztu egin du errenta-banaketarako gaitasuna

Are gehiago, zerga-sistema progresiboago bat izateko, zergak igo egin behar dira. Zerga-sistema progresiboago bat izateko, zuzeneko zergen bidezko diru-bilketa handitu behar da, eta zeharkakoena jaitsi. Sozietate-zergen progresibitatek eza zuzendu beharko litzateke, eta, horretarako, sozietate-zerga

gehiago zergapetu behar da, eta lan-errentena gutxiago. Era berean, zerga berriak sortu behar dira, esaterako, Google tasa edo bankuen gaineko zerga, bankuek duten zor historikoa kitatzeko. Eta, azkenik, iruzur fiskalaren eta paradisu fiskalen kontra borrokatu behar da. Erreforma horiek egingo balira, estatuak aski sarrera izango luke beharrezkoa den gastu soziala aplikatzeko. Esan bezala, aipatu ere ez da egiten.

Estatuko aurrekontu orokorre dagokienez, sarrerak eta gastuak dagozkien epigrafeetan zehazten dira. *Behatokia* atalean, Espainiako 2017 eta 2018 urteetako aurrekontuen gastua zehazten da, politika desberdinen arabera antolatuta. Atal hori oso interesgarria da, estatuak politika desberdinetan gastatutako proportzioa erakusten baitigu.

Garaia da estatuko aurrekontuetan baliabide naturalen kontu-sistema eratzeko, baita etxeko lanen eta zaintza-lanen kontu-sistema sortzeko ere. Hala, estatuaren planifikazioetan zuzenean monetaz neur ezin daitezkeen elementuak egongo lirateke, ongizate-maila zehazteko orduan zeresan handia dutenak.

Testuan, ekitate-printzipioan oinarritutako errenta-birbanaketa ere azaltzen da. Atal honetako *Behatokian Giniren indizea* azaltzen da, ezinbesteko adierazlea errenta-birbanaketaz hitz egitean. Horrekin batera, **Giniren indizeak 2008tik 2016ra Espainian eta**

eurogunean izandako bilakaera azaltzen da. Bilakaera horretan, Espainiaren Giniren indizea eurogunearena baino handiagoa dela ikus daiteke; beraz, Espainiaren errenta-birbanaketa eurogunearena baino desorekatuagoa da. Bilakaera hori adieraztea datu errealean berri ematea da, eta giltzarria da jakitea zer mailatan kokatzen den Espainia eurogunearekiko. Datu hori politika ekonomikoen erreformei ekiteko abiapuntua izan daiteke.

Aurrekontuen saldoaren kalkulua ere egiten da, eta **defizitari** arreta berezia eskaintzen zaio, normala denez, bi multzotan sailkatuta: egiturazkoa eta ziklikoa. Defizit publikoaren finantzaketaz ere badihardu, eta neurri

Jarduerak

Hausnarketa atalean, ondorengo esaten da: "Estatuari osasungintzan itxarote-zerrendak laburtzeko eskatzen zaionean..., zergak igotzeko eskatzen ari gara, gure eskaerei erantzuteko, edo jada badagoen gastua hobeto birbanatzeko". Hausnarketa hori proposatzea oso interesgarria eta baliagarria da, adierazten baita ongizate-estatua nahi badugu zerga-sistema indartsu bat behar dugula. Komeniko litzateke hausnarketa hori luzatzea, esanez zerga-sistemak erreforma sakon bat behar duela, aurrerakoiagoa izateko eta aurretik aipatutako oztupoak gainditzeko.

Jarduera ebatzi batean **Laffer-en kurba** aipatzen da. Kurba hori guztiz eztabaidagarria da, azpimarratzen baitu presio fiskal konkretu batetik aurrera zergapetzeak jarduera

hauek proposatzen ditu: zor publikoa jaulkitzea, zergak igotzea eta zirkulazioan dagoen diru-kopurua handitzea.

Une bakar batean ere ez dira aipatzen 2008ko finantza-krisiaren ostean defizita kontrolatzeko helburuarekin eurogunean hartu ziren "neurri austerizistak", ezta ere nola areagotu zuten neurri horiek euroguneko herririk txiroenetako krisi ekonomiko eta soziala. Harrigarria suertatzen da aipatu ere ez egitea, kontuan hartuta horrek ekarri zituen ondorioak; are gehiago, gaur egun COVID-19aren ondorioz bizi dugun krisia dela eta, aipatzeko eta sakontzeko gaia da.

ekonomikoa eta inbertsioa jaitsaraziko dituela eta, ondorioz, baita diru-bilketa ere. Baieztape hori da, hain zuzen ere, **ekonomia liberalaren aldekoek erabiltzen duten argudioa zergapetzea jeisteko.** Aldiz, **esperientzia historikoak eta ikerketa empirikoek gezurtatu egiten dute** hala dela.

Dilema atalean, **zerga-amnistiaz edo amnistia fiskalaz** hausnartzen da, zerga-amnistiaren etikotasunaz.

Zinema-proposamena atalean, *John Q* filma proposatzen da, ongizate-estatua eta osasungintza-ereduaz hausnartzeko aukera ematen duena.

Gaien analisia

10. UNITATEA: DIRUA ETA MONETA-POLITIKA

Sarrera

“Dirua ekonomiaren motorra da. Denok onartzen dugu dirua”. Esaldi horrekin abiatzen da unitatea. Sarreran, diruaren hiru funtzioak zehazten dira. Erosteko, aurrezteko eta balioa neurtzeko erabilgarria da, eta adibide gisa hartzen ditu “iPhone-a, oinetakoak eta hanburgesak”. Aurkezpen-paragrafoan gogorarazten da agintariak helburu bat izan behar dutela, hau da, diruaren prezioa ahalik eta egonkorrena izatea. Hasierako testuan billeteen kolore desberdinen eraginaz hausnartzen da, eta azaltzen da diruaren sekretua jendearen konfiantza

dela. Diruarekiko konfiantzan oinarritzen dira nazioarteko merkataritza, merkatuak, enpresak eta bankuak, eta diruak gizartearen konplexutasuna eraikitzen izan duen garrantzia nabarmentzen da. “Billete bat ikusten duzunean, begiratu ondo, isil-isilik; zure mundu osoa nigan konfiantza izatearen mende dago”; esaldi esoteriko horrekin bukatzen da hasierako hausnarketa, eta galdera praktikoa batzuekin.



Edukia

Lehenengo atala diruaren hiru funtzioei buruzkoa da. Espezializazio produktiborako aukerak sortuz, diruak truke zuzeneko ekonomiak gainditu izanaren garrantzia aipatzen da. Beste erabilera batzuk ere baditu diruak; esate batera, gauzen balioa neurtzeko erabiltzen dugu, eta gorde daitekeen bitarteko iraunkor bat da. Legezko billete eta txanponetatik harago, banku-dirua eta beste aktibo likido batzuk ere azaltzen dira, baita diru-agregatuen magnitudeak ere. Diruaren prezioarekin jarraitzen du aurrera, eta interes-tasaren izaera azaldu eta horrek eragindako faktoreak zerrendatzen ditu. **Maileguaren iraupena eta likidezia-maila inportanteak diren arren, eragiketaren arriskua da haren prezioa edo interes-tasa finkatzeko alde erabakigarriena.** Horri dagokionez, diru- eta finantza-sistemaren kontraesan garrantzitsu bat nabarmentzen da, oso modu egokian, gainera: **“behar gutxien dutenek maileguak lortzeko erraztasun handiagoak dituzte”**.

Hurrengo bi ataletan, prezioak eta **inflazioa azaltzen dira, eta nabarmentzen da inflazioa dela “ondasunen, zerbitzuen eta ekoizpen-baliabideen prezioek, guzti-guztiekin, aldi berean gora egitea”**. Aipatu gabeko Diruaren Teoria Kuantitatiboaren bidez (Prezioak [P] x Kantitateak [Q] = Masa monetarioa [M] x Arintasuna [V]), azaltzen da moneta-inflazioa zirkulazioan dagoen diru-kantitatearekin lotuta egon daitekeela. Bigarren egoera eskari-inflazioa izan daiteke; enpresek dituzten itxaropenek, eskari publikoak eta familiek gastu handiagoa egiteko hartutako erabakiak inflazio-mota hori sortzen dute. Hirugarren inflazio-mota, azkenik, kostu-inflazioa da, eta erakusten da zer gaitasun duten baliabideek, diruak eta, bereziki, soldata-igoerek ekonomian inflazioa sortzeko. Hiru arlo horietan politika ekonomikoak ezarri, “agintariak funtsezkotzat jotzen dute eurogunean **inflazioa kontrolpean izatea**”. Aurrerago erakutsiko diren **moneta-politika egokiak dira hori lortzeko tresna**. Hala, **beste helburu politiko posibleak alderatzen dira –adibidez, langabezia gutxitzea–, inflazioa lehenesteak –eta beste aldagai batzuen garrantzia gutxitzeak– ondorioak baititu.**

Inflazioaren ondorioei eskainitako 2.2 azpiatalean, kaltetuak/onuradunak bereizketa egiten da, eta bereizketa egokia da. Inflazioaren kalteak nabaritzen dituztenak dira pentsiodunak, langileak, aurreztaileak eta enpresa esportatzaileak, eta inflazioaren onurak jasotzen dituztenak, berriz, zordunak, Estatuak eta enpresa inportatzaileak. Erosteko ahalmenak nozitzen du inflazioaren eragin zuzenena, baina, eragin hori ulertzeko, pentsiodunen eta langileen errentak inflazioarekin batera eguneratzeko joera nabarmendu beharko genuke, eta izandako kalteak marko kolektibo eta politiko batean kokatu. Unitateak ez du kontuan hartzen alde politiko kontingente hori, eta, onuradunen karrikatura egiteko joerarekin batera (zorpetuta daudenak, kreditu bidez ordaintzen duten erakunde publikoak eta atzerrian erosten duten enpresak), unitatearen helburu nagusia da inflazioa gutxitzeko lehentasun politikoa finkatzea. Lehen esan dugun moduan, era horretan politika ekonomikoaren beste helburuak gutxiesten dira, eta **eskola monetaristek 1970eko hamarkadatik aurrera lortutako hegemonia ideologikoa indartzen**. Kostu-inflazioa eta, bereziki, **soldata-maila argudio horren bidez mugatzen dute, nahiz eta hori egitearen alde desegokiak argi geratu diren** 6. unitateko ataletan. Gure garaiko eztabaida ekonomiko nagusia den heinean, ezinbestekoa ikusten dugu inflazioa beti ziurgabetasunarekin lotzearen arriskua aipatzea.

Inflazioaren adierazleak ulertzeko atala egokia da sektore eta produktu desberdinen prezioen bilakaera ulertzeko eta prezioen aldakortasunaren eragina balioesten ikasteko. Eskertzekoa da bilakaera hori neurtzea eta gehien erabiltzen dugun Kontsumo Prezioen Indizearen (KPI) mugak azaltzeko azpi-atal bat egotea.

Hurrengo bi ataletan, moneta-politika eta Europako Banku Zentralaren (EBZ) helburuak eta eginkizunak azaltzen dira. Hala, **moneta-politika independentearekiko eta prezioak egonkor mantentzearen lehentasun erabatekoarekiko fedea ezartzen da**; hau da, Milton Friedman-en eta neoliberalismoaren fundatzaileak izan ziren eskola monetaristen aldeko

hautua egiten da. **Moneta-agintaritzak ez du gobernu demokratikoekin harremanik izan behar, aitzinamendu arrazionalak ekonomisten irakaspenei jarraituz;** gobernuak moneta-politika gidatuz gero, enpresek eta bankuek aurreikusten dituzte politika horiek, haien programetan agertzen diren heinean. Moneta-politikaren eragina aurreikusi eta baliogabetzeko efektua sortzen da nahi eta nahi ez. "Gobernuek erabakitzen dute, eta banku zentralak aplikatu"; hori esaten da atal honetan, baina, 10.8 irudian erakusten den moduan, EBZren estatutuetan jasota dago erakundearen helburu nagusiak prezioen egonkortasuna izan behar duela, AEBko erreserba federalena ez bezala, zeinaren helburu nagusia baita hazkunde ekonomikoa edo enplegu betea. Egokia da gaur egungo euroguneko moneta-politika 1992ko Maastricht-eko Tratatuarekin lotzea eta prezio egonkorren helburuaren nagusitasunak izaera historikoa duela azalera.

Unitatearen azken ataletan **moneta-tresnak** eta haien ekonomian duten eragina aurkezten dira. Hauek dira likidezia finkatzeko tresna konbentzionalak: erreserba minimoen inguruko arauketa, bankuei emandako erregulazio-erraztasunak eta, batez ere, EBZk astebeterako eskaintzen dituen mailegu-loteak. Dirua eskuratzeko enkante horietan, banku zentralak merkatuetan sartzen den diru-kopuru berriak finkatzen dituzte. Ondoren, **2014tik aurrera EBZk erabili zuen ezohiko tresna aurkezten da, alegia, hedapen kuantitatiboaren (QE) moneta-tresna.** Hala, gaur egun mundu osoan eztabaidatzen eta gauzatzen ari diren suspertze-planen aukera erakusten da, eta uste dugu hori oso egokia dela eta ondo azalduta dagoela. Bukatzeko, moneta-politiken eragina erakusten da grafikoen bidez, eta irudikatzen da zer eragin duten moneta-politika hedatzaileak (masa monetarioa igotzeak) eta murriztaileak (jaisteak) prezioetan, kontsumoan, inbertsioan, ekoizpenean eta enplegu-mailetan. 6. *Behatokian* mundu-mailan interes-tasek behera egiteko duten joera nabarmena erakusten da.

prezioen, inflazioaren eta moneta-politikaren inguruko kasu praktiko anitz eskaintzen baititu. Aipatzekoa iruditzen zaigu 13. ariketan gogorarazten dela **"Erdi Arora arte, erlijioak interesak ordaintzea debekatzen zuen; izan ere, Jainkoak soilik zuen denbora eta, beraz, denboragatik interesak sortzeko ahalmena"**. Ez da aipatzen kapitalismoaren sorreran erreforma protestanteak izan zuen eragina (Weber, Polanyi), baina egokia da argi uztea zer-nolako traba gainditu behar izan zuen hasieran kapitalismoak "dirua uzteagatik interesak kobratzea justifikatzeko", ariketaren azken galderan planteatzen den moduan.

Jarduerak

Ekonomia errealtatean atalak inflazioaren irakurketa mediatikoen arteko aldeak ulertzeko ariketa proposatzen du. Hala, inflazioaren eta KPIren bilakaeraren inguruko berriek zer-nolako nahitasun politikoa izan dezaketen erakusten da. Amaierako *Dilema* ere oso egokia da Europar Batasuneko austeritate-politikaren inguruan hausnartzeko. Gogorarazten da nola larriagotu zen 2010ean 2008an hasitako krisia, EBZk ez zuelako eskuragai ipini martxan jarritako politika ekonomikoak behar zuen adina likidezia. Azaltzen da baita AEBk

kontrakoa egin zuela; izan ere, suspertze-planen likidezia eta gastu publikoa handitzeko neurriak, Obamak ezarriak, Europako kontrakoak izan ziren. Unitatearen amaieran, nazien aurkako diru-faltsifikatzailearen inguruko filma ikusteko proposamena egiten da, eta dirua erretzen duen aitaren eta haren alabaren bineta bat ere badago.

11. UNITATEA: FINANTZA-SISTEMA ETA BURTSA

Sarrera

"Finantza-sistema aurrezkiaren eta inbertsioaren arteko ezinbesteko zubia da". Esaldi horrekin abiatzen da unitatea, finantza-bitartekaritzaren ezinbestekotasuna nabarmenduz. 4. unitatean azaldutako merkatuaren orekaren teoriaren bidez, unitate honetan finantza-produktuak eta burtsak ere ekonomia antolatzeke ezinbesteko tresna gisa aurkezten dira. Bankuak eta burtsak ekonomiaren adierazle moduan azaltzen dira, eta esaten da haien galerak edo beherakadak enpresak itxi, lanpostuak galarazi eta herriak pobretzeko joerak areagotuko dituztela.

Sarrerako irakurketan Warren Buffet inbertsore ospetsuaren irakaspen bat azaltzen da: finantza eta burtsen bidez aberasteko bidea da besteek egiten dutenaren kontrakoa egitea. **Burbuila deritzon fenomenoak askoren galera eta beste batzuen etekin handia dakar, eta kontraste hori merkatu-ekonomien joera natural gisa planteatzen da.** Testua hortik abiatu ondoren, aurrerago gogorarazten da bankuak krisien konplizeak direla, eta burbuila espekulatiboen biktima ez izateko gomendioa ere ematen da: "mesfidantzaz jokatu behar da" bankuek proposatutako produktu erakargarrien aurrean.

Jarduerak

Unitate honetan jarduera egokiak planteatzen dira, inflazioa kalkulatzeko mekanika ulertzeko eta praktikan jartzeko. Ez da beti erraza inflazioa interpretatzen jakitea, aldagai tenporalak makroekonomikoekin nahasten direlako, eta momentu bakoitzeko egoeraren gainean egiten diren irakurketak etengabe gurutzatzen direlako, interes kontrajarriak dituzten gizarte eta herrialdeetako eztabaida ekonomiko gatazkatsuen ondorioz. Beste jarduera asko nahiko teknikoak dira, eta haien helburua da eskolan azaldutakoa norberaren hitzekin garatzea, egoera batean edo bestean moneta-politiken tresnak ulertzea, zelan gauzatzen diren jakiteko eta izaten dituzten eraginak analisi markoetan uztartzeko. Halakoa da ere unitatearen amaierako ariketa-sorta, zeinak diruaren,

Unitate honetan finantza-sistemaren osagaiak aurkezten dira, eta, horretarako, lehenik eta behin bankuarenak diren bitartekariak eta bankuarenak ez direnak aurkezten dira. Bankuarenak ez diren bitartekariak aurreztaileei eta enpresei eskainitako zerbitzuak dira. Kontzeptu hauen ezaugarriak azaltzen dira: epekako ordainketa, aseguru-poliza, balio-saskia, brokerra, dealer-a, arrisku-kapitaleko sozietateak, leasing-a eta factoring-a. Produktu horiek guztiak likidezarako, kontsumorako eta inbertsioak egiteko erabil daitezke, eta haien kopurua eta aniztasuna gure egungo merkatu-ekonomien konplexutasunaren isla da. **“Beharrezkoa da administrazio publikoek finantza-sistema arautu, ikuskatu eta kontrolatzea”**, eta horretarako daude Espainiako Bankua, CNMV eta beste erakundeak. Aipagarria da 1. Behatokiaren bidez ematen den adibidea (213); izan ere, gestoreek kudeatutako inbertsio-funts kolektiboek duten garrantzia erakusten du, “maneiitzen duten diru-kopurua Espainiak edo Alemaniak urtean irabazten dutena baino handiagoa” baita. Ez dago horri buruzko hitz kritiko bakar bat ere, baina, hori bai, “bide onetik joan dadin, asaldurarik gabe, erakunde publikoek arauak jarri eta sistema zaintzen dute”.

Bigarren atalean bankuen jarduera azaltzen da. Banku-bitartekaritza egitea eta banku-dirua sortzea dira bankuen betebeharrak. Maileguak eta inbertsioak egiteko erabiltzen dituzte bankuek bezeroen gordailuak, kutxa-koefizienteak finkatutako dirua biderkatzeko gaitasunaren bidez. Bankuek gordailuen ehuneko txiki bat baino ez dute gordetzen, eta, horren ondorioz, domino-efektua eta banku-izua gertatzeko arriskua dago, eta hori azaltzen da atal honetan, baita 2. Behatokiaren bidez ere. 2007ko zabor-hipoteken eztanda azaltzen da; bankuek dirua biderkatzeko duten gaitasuna dela eta, likidezia-arazoez beldur kolektiboa eragiten dute, eta finantza-krisiak piztu. Nolanahi ere, azalpena apur bat baikorra da, honela esaten baita: “Gaur egun, banku-izua ez da oso ohikoa, agintariek berehala hartzen baitute esku bezeroek bankuetan duten konfiantza berreskuratzeko” (216). Baina orduan, konfiantza dugu edo izan behar dugu bankuetan? Azkenean ez da argi geratzen.

Unitatearen hirugarren atalean, finantza-produktuak aurkezten dira. Likideziaz, dirua arin berreskuratzeko aukerak eta segurtasunak finantza-produktuen errentagarritasuna jaisten dute. Finantza-produktuak arriskuaren arabera sailkatzen dira, teoria ekonomikoaren arabera arriskutik hartzen baitu kapitalak etekinak eskuratzeko zilegitasuna. Atal honetan errenta finkoko estatu-bonuak, errenta aldakorreko baloreak eta akzioak aurkezten dira. Akzioek boto-eskubidea eta etekinen gaineko dibidenduak eskuratzeko aukera ematen dute. Unitatearen azken atalean azaltzen da akzio horiek merkatu primarioetan jaulkitzen direla eta gero burtsaren bidez salerosten direla.

Inportantea da bonuek eta akzioek bigarren mailako merkatuetan jasaten duten ezegonkortasuna nabarmentzea.

Bestalde, finantza-sistemek burbuila espekulatiboaren bidez sortzen dituzten arrisku sistemikoak ulertzeko baliabideak eskaintzen dira. Adibidez, 4. Behatokiak kalifikazio-agentzien rola azaltzen du (223), akzioen merkatuez eta burtsa-indizeez harago, haien neurketak eragin nabarmena izaten duelako enpresen eta estatuen tituluen merkatu-fluktuazioen gainean.

Unitatea epeka erosteari edo aseguruak kontratatzeari buruzko ariketekin hasten da. Beste ariketa batzuetan, bankuen eta moneta-politikaren arteko lotura egiten da. Banku-dirua sortzearen inguruko 1. eta 2. jarduera ebatzietan, likidezia-koefizientearen garrantzia ulertzeko ariketa bat egiten da. Horietan, dirua biderkatzeko gaitasuna gutxiesten da, eta % 20ko eta % 10eko kutxa-koefizienteak erabiltzen dira, guztiz irrealak direnak (215-217). Hortik harago, bai ariketa horiek bai 9. eta azken ariketak ere erabilgarriak dira banku-diruaren sorkuntza neurtzen ikasteko.

12. UNITATEA: NAZIOARTEKO MERKATARITZA

Unitate honetan proposatzen den egitura egokia da. Izan ere, nazioarteko merkataritza eta merkataritza-politika nagusien (irekiera eta protekzionismoa) arteko desberdintasunak lantzen dira. Ordainketa-balantzaren eta dibisa-merkatuaren azterketa ere egiten da, eragiketa komertzialen likidazioa baita haren erabilera-molde nagusietako bat. Are gehiago, herrialde aberatsek eta enpresa multinazionalak (EMN) nazioarteko harreman komertzialetan duten botere-nagusitasuna ere onartzen da. Ordea, ez da egiten Munduko Merkataritza Antolakundearen (MMA) berrikuspenik, zeina baita merkataritza arautzeaz arduratzen den nazioarteko erakundea.

Unitatea **nazioarteko merkataritza-fluxuen existentzia justifikatzen duten faktoreekin abiatzen da, ikuspegi lerratu eta partzial batetik abiatu ere**. Azalpenak tonu aseptikoa du, oso artifiziala dena, alde batera uzten baititu faktore historikoak, zeinak ezinbestekoak baitira herrialde bakoitzak nazioarteko merkataritzan betetzen duen lekua ulertzeko. **Behin**

Unitatearen amaieran, finantzaren eta burtsaren inguruko ariketa ugari daude. Ekonomia errealitatean atala erabilgarria da burtsako albisteak interpretatzen ikasteko. Dileman, berriz, **2010-2015 bitarteko Greziako erreskateak eta garai hartako EBren politika aztertzen dira, oso kasu garrantzitsua baita bankuek eta finantza-funtsek munduko ekonomiaren eta estatuen gainean duten botereaz jabetzeko**. Azkenik, *Wall Street* filma ikustea proposatzen da (Michael Douglas da protagonista nagusia), baina ikasleentzat erakargarriagoa izango zen, agian, *The Wolf of Wall Street* (Leonardo di Caprio da protagonista nagusia).

Unitatearen sarrerako testuan debate interesgarri eta esanguratsu bat proposatzen da: merkataritza-politikaren kudeaketa eta horrek enpleguaren gainean duen eragina. Nolanahi ere, modu aski partzialean planteatzen da, iradokitzen baita muga-zergek tokiko produktoreei egiten dietela mesede eta zerga horiek kentzeak, berriz, kontsumitzaileei.

ere ez dira aipatzen harreman inperialistak, zeinen bitartez hedatu baitzen kapitalismoa XIX. mendearen amaieran, batez ere, eta zeinak eragin baitzuen ekonomia mundu-mailakoa bihurtzea eta gaur egun lanaren nazioarteko banaketak duen egoera. Horren ordez, analisisa kontsumitzaileen lehentasunen eta produkzio-kosten inguruan egituratzen da. Lehen elementua aipatzea

kapitalismoaren funtzionamenduari buruzko ikuspegi apogetiko bati baino ez dagokio; kontsumitzailearen burujabetza nabarmentzen da, eta alde batera uzten enpresek kontsumo-ohituretan duten eragin handia. Gainera, testuan aipatzen den adibidea barregarria da: Estatu Batuetako zinema-industriaren kasua argigarria da ulertzeko nola potentzien helburua den kultura-esparruan duten hegemonia hedatzea.

Oso egokia da produkzio-kostuak nazioarteko merkataritzaren faktore esplikatzaile hartzea eta hori izatea baliabide-hornikuntzari eta teknikaren egoerari buruzko azterketaren oinarria. Halere, modu partzialean eta azalekoan planteatzen da, eta ez ditu aztertzen bi alderdi horietan herrialdeen artean dauden desberdintasunak azaltzen dituzten arrazoiak. Badirudi planetako baliabideen ausazko banaketa baten emaitza dela, ez baitira aipatzen harreman kolonialen ezaugarri diren baliabide-lapurretak, ez eta potentzia inperialistek teknikaren garapenean duten zeregin berezia ere. Beraz, atal honek ikuspegi ahistorikoa du, eta, horregatik, ez du lortzen nazioarteko merkataritza zehazten duten faktoreak azaltzea.

Ondoren, **herrialdeen arteko harreman komertzialak azaltzeko balio duen oinarri teorikoa erreparatzen da, abantaila konparatiboaren teoriaren azterketatik abiatuta**. Lehenik eta behin, definizio oker bat ematen da, esaten baita "ondasun jakin baten ekoizpenean ona" izateaz gain "gainerakoak baino hobea" denak duela abantaila konparatiboa. Planteamendu hori abantaila absolutuaren teoriari dagokio, zeina, bide batez esanda, azalpen esplikatibo handiagoa duen arren testuan ez da aipatu ere egiten. Abantaila konparatiboaren teoriaren arabera, bi ekonomia irabazten aterako dira nazioarteko merkataritzan, nahiz eta horietako batek abantailak izan adar produktibo guztien ekoizpenean. Eta ondorio horri heltzen dio testuak nazioarteko merkataritzaren funtzionamenduari buruzko ikuspegi idiliko bat eskaintzeko, errealitatetik erabat urrun dagoena: abantaila konparatiboaren teoriaren azalpenari lotutako jarduera ebatzian esaten da merkataritzarekin

herrialde guztiak "irabazten" aterako direla. **Behin ere ez da aipatzen ekonomia periferikoen mundu-mailako merkataritzan bizi duten mendekotasuna, kanpoaldearekiko egoera ahulean kokatzen dituen.**

Onartzen da zer muga dituen abantaila konparatiboaren ereduak gaur egungo nazioarteko merkataritza azaltzeko, batez ere oinarrian dituen suposizio murriztaileengatik, eta azalpenean beste ikuspegi batzuk ere gehitu dira, hura zabaltzeko. Alde batetik, Hecksher-Ohlin-en teoria, zeinaren ahalmen esplikatiboa aski mugatua baita: ebidentzia enpirikoak gezurtatu egiten ditu haren ondorio nagusietako batzuk, hala nola ordainsari faktorialaren berdintasuna. Bestalde, nazioarteko merkataritzaren teoria berria, errealitatetik gertuago dagoena, lehia inperfektuan eta eskala-ekonomien existentzian oinarritzen delako.

Jarraian, liberalismoaren eta protekzionismoaren analisi konparatiboa egiten da. Adierazten da ekonomia "globalizatuen" ezaugarri nagusia dela "merkataritza-hesirik ez izatea" (237. or.). Hala, ez da kontuan hartzen potentzia ekonomikoek elementu protekzionista garrantzitsuak dituztela lehen sektorean eta ehungintzan, eta errealitate horrek gatazka handi bat eragin duela Munduko Merkataritza Antolakundearen (MMA) ekonomia horien eta periferikoen artean. Liberalismoaren analisisa bere ondorioen ikuspegi erabat idealizatuan oinarritzen da (produktu-aniztasun handiagoa, lehiakortasun handiagoa eta abar), eta ez da aipatu ere egiten horrek kapitalaren kontzentrazioa areagotzen duela, enpresa multinazionalen boterea indartzen duela eta tokiko industriaren desagerpen erabatekoa eragin dezakeela. Protekzionismoaren analisisa merkataritza askeak ekonomia azpigaratuetan dituen ondorioetatik abiatzen da, potentzia ekonomikoek selektiboki erabiliko ez balute bezala. Halere, askoz gertuago dago errealitatetik aurrekoa baino, eta era horretako politika komertzialekin lortu nahi diren helburuetan jartzen du arreta, baita hura osatzen duten baliabide nagusietan ere.

EMNen boterearen aurreko alternatiba gisa bidezko merkataritza aipatzen da, baina anekdotikoki bakarrik, argazki-oin batean.

Unitatean aurrera eginda, **ordainketa-balantza aurkezten da. Egiturari eta interpretazioari buruzko azalpen egokia ematen da**, kasu zehatzen proposamenetik abiatuta, zeinek, oso errealistak ez diren arren, bere funtzionamenduen oinarritzko nozioak ulertzeko aukera ematen baitute.

Unitatearen amaieran, **dibisa-merkatuaren funtzionamendua aztertzen da**. Lehenik eta behin **truke-tasa** definitzen da, eta gero **hura zehazten duten elementuen azalpen oso azalekoa** ematen da, soil-soilik eskaintzaren eta eskaeraren aldakuntzetatik abiatutakoa. Zalantzarik gabe, mugimendu horiek gorabehera koiunturalak eragiten dituzte monetaren truke-tasan, baina egiturazko faktore erabakigarriak ere badaude, aipatu ere egiten ez direnak; esate batera, ekonomiaren lehiakortasun-maila. Adibideen bidez, azalpenean truke-tasak izan ditzakeen gorabehera

Jarduerak

Oro har, proposatutako ariketak egokiak dira, unitate honetako edukiak aplikatzeko kasu zehatzak eskaintzen baitituzte: ordainketa-balantzari buruzko ariketak, edo dibisa-merkatuaren funtzionamenduari eta horrek merkataritza-jardueraren gainean duen inpaktuari buruzkoak. Nolanahi ere, bada parte teorikoarekin lotutako jardueraren bat, abantaila konparatiboa justifikatzeko planteatzen dena, defendaezinak diren konparazioetan oinarritzen dena. Adibidez, 3. ariketa, non konparatu nahi baitira herrialdeen lehiakortasuna eta pertsonen gaitasun fisikoak.

Ekonomia errealitatean atala nazioarteko merkataritzaren alderdi zehatz batean oinarritzen da, itsas garraioa. Halere, egokia da hori sartzeari aukera ematen baitu adierazle batzuen esanahia interpretatzeko eta merkataritzak zenbait ekonomia motatan duen inpaktuari buruz hausnartzeko.

desberdinak ere aipatzen dira, baita horrek nazioarteko merkataritzaren fluxuetan izan dezakeen eragina ere, eta horrek moneta nazionalaren prezioaren eta saldo komertzialaren arteko lotura ulertzeko aukera ematen du.

Nazioarteko diru-sistemak ere aztertzen dira, baina oso modu orokorrean, eta, harrigarria bada ere, gaur egungo mundu-mailako ekonomiari aplikatu barik, non ez baitago nazioarteko diru-sistemarik eta flotazio zikina eta gerra komertzialak baitira nagusi.

Azpmarratzekoa da, halaber, mugimendu espekulatiboan azterketa analitiko kanpo uztea, jakinda ere aldakortasuna izan dela dibisa-merkatuen ezaugarri nagusia Jamaikako Akordioetan (1976) Bretton Woods-etik eratorritako nazioarteko diru-sistema likidatu eta finantza-desregulazioa orokortu zenetik, zeinak ekarri baitzuen, batez ere, kapitalaren gaineko kontrolak ezabatzea. "Tobin tasa" gisa ezagutzen dena baino ez da definitzen, lauki osagarri batean, mugimendu espekulatiboei pizgarria kentzeko sortu zena.

Proposatutako eztabaida egokia da, neurri protekzionisten eragina ikuspegi desberdinetatik planteatzen duelako. Halere, nahiko modu partzialean planteatzen da, ez baitu esaten nor diren Nekazaritza Politika Bateratuaren onuradun nagusiak: jabe handiak, sektoreko langileak baino gehiago.

Azkenik, proposatutako filmak aukera ematen du ikasleak jabetzeko zer-nolako boterea duten EMN handiek nazioarteko merkataritzan eta zer-nolako eragina ekonomia periferikoetako ekoizle txikiengan. Hortik abiatuta, neurri alternatiboen adibidez, bidezko merkataritzak izan dezaketen garrantziari buruz eztabaida daiteke.

Gaien analisisia

13. UNITATEA: EUROPAR BATASUNA (EB) ETA GLOBALIZAZIOA

Sarrera

Hasierako sarreratxoan, unitate honetan erreparatu diren edukien arteko lotura egiten da: Bigarren Mundu Gerraren (BMG) ondoren, elkarlanerako estrategiak abiatu ziren ekonomia nazionalen artean, eta horiek anbizio handiagoko integrazio-proiektuak ekarri zituzten. Horietatik abiatuta, globalizazioa aztertzeke proposamena egiten da, gaur egun mundu-mailako ordena ekonomiko berri bat osatzen duena. Unitate honetan bereziki aztertzen da Espainiako ekonomiaren txertaketa mundu-mailako ekonomian.

Unitatearen hasierako sarreran **oso eztabaidagarriak diren planteamenduak egiten dira, globalizazioak pobrezian duen eraginari buruzkoak**. Azpimarratu behar da ez dela definitzen 'globalizazio' terminoa, zeina oso generikoa baita, eta horrek interpretazio desberdinak eragin ditzake. Gainera, **argi eta garbi esaten da globalizazioa pobrezia murrizten ari dela**. Kontuan izan behar da pobrezia bi ikuspegi desberdinetatik azter daitekeela, absolutua eta erlatiboa, eta horrek teoria ekonomikoaren alorrean behin eta berriro errepikatzen den eztabaida bat eragiten du, ikuspegi bat edo bestea

Edukiak

Lankidetzaren azterketari buruzko atala oso planteamendu inozoarekin abiatzen da, definizioaren azalekotasetatik begiratuta soilik uler daitekeena, esaten baita Bigarren Mundu Gerraren eragilea kooperaziorik eza izan zela. Hasiera-hasieratik, agerian geratzen da unitate osoak dituen ahulguneetako bat: testuinguru historikorik eza. Ez da aipatzen Estatu Batuak gidatutako herrialde-blokeak kapitalismoa berpizteke duen beharra, ezta eredu sobietarraren hedapenari galga jartzeko beharra

erabiltzeko komenigarritasunaren inguruan. Testuan "herritar arrunt" baten eta duela mende batzuetako errege baten bizi-maila konparatzen dira, eta Munduko Bankuaren parametroak erabiltzen dira pobrezia murrizteke justifikatzeko. Hau da, **testua ikuspegi absolutu batetik abiatzen da pobrezia aztertzeke. Ikuspegi horrek muga asko ditu**. Adam Smithek berak ere testuaren abiapuntua den adibide bera erabiltzen du (berak XVIII. mendeko nekazari eskoziar baten bizi-maila erabiltzen du) ikuspegi hori alde batera utzi eta ikuspegi erlatiboaren gailentasuna proposatzeko: subjektuen bizi-baldintzak gizartearen unean uneko garapen ekonomikoaren mailaren arabera alderatu behar dira, ez gizarte desberdinekin, testuan egiten den bezala.

ere, batez ere SESBek BMGn lortu zuen garaipenaren ondoren. Hortik abiatuta, Nazio Batuen Erakundearen (NBE) sorrera aipatzen da, baita izaera ekonomikoko beste erakunde batzuen ere (haien arteko harremana aipatu gabe). **Munduko Bankuaren (MB) eta Nazioarteko Diru Funtzaren (NDF) erreparoa oso azalekoa da, eta ez dira aipatzen haien jarduketan alderdirik**



gatazkatsuenak: finantza-laguntzaren truke eskatutako baldintzazkotasuna, ezarritako neurrien inpaktu soziala, herrialde onuradunen subiranotasuna mugatzea eta abar (hausnarketarako proposatutako jarduera bakarrean soilik gonbidatzen dira ikasleak neurri horien eragina baloratzea). Antzeko zerbait gertatzen da Munduko Merkataritza Antolakundearen (MMA) azterketarekin: ez da aipatzen potentzien eta ekonomia periferikoen arteko interes-gatazka, zeinak negoziatio-txandak blokeatu baititu bat bestearen atzetik, eta zeinak azaltzen baititu erakunde horrek nazioarteko merkataritzaren alorrean erdietsi dituen aurrerapen urriak.

Integrazioaren azterketari ekiteko, lehiaren abantailak sakralizatzen dira: planteatzen da ezen ekonomien integrazioetik abiatuta lortzen direla "lehiakorrakoak eta efizienteagoak diren nazioz gairako lehia-espazioak" (258 or.). Ekonomiek erdietsi ditzaketen integratio-mailak bereizi ondoren, horrelako estrategietatik eratorritzen diren abantaila guztiak azaltzen dira, guztiak ere lehia-maila handiagotik eratorriak... eragin ditzaketen arazoak aipatu ere egin gabe (burujabetza nazionala mugatzea eta abar). Atal honetan proposatutako jarduerak izaera aplikatua dute, integratio-akordioek izan dezaketen eraginari dagokionez; horregatik, ikasleek hausnarketa kritikoa egin dezakete. Halere, badira beste batzuk funtsik gabeko automatismoetan oinarritzen direnak (6. jarduera); esate batera, integratioak zuzen-zuzenean areagotzen duela enpresen lehiakortasun-maila.

Europar Batasunaren azterketak prozesuaren ikuspegi triunfalista du: inolako lotsarik gabe, baieztatzen da "EBko herrialdeek arrakastaz gairatu dituztela beren arteko desberdintasunak" (260. or.); hala, errealtatearekin bat ez datorren egoera idiliko bat aurkezten zaie ikasleei, non interes-gatazkak gailentzen baitira eta herrialderik boteretsuenak gai baitira beren interesak ahulenei inposatzeko. **Edukiak ikuspegi apolitiko batetik jorratzen dira, eta horrek EBren izaera gatazkatsua ulertzea eragozten du.** Atalak, oro har, ez du testuinguru historikorik, eta, beraz, ezinezkoa da prozesua definitu duten faseen motibazioak ulertzea; bestalde, eztabaida politikorik ere ez du, eta, beraz, ezinezkoa da European integratioak duen izaera kontraesankorra ulertzea. Proposatzen da politika bateratuaren helburua izan dela sektore produktiboak babestea, baina, egiaz, zenbait ekoizpen-segmenturen likidazioa bultzatu du hainbat ekonomiatan, lanaren nazioarteko banaketa-prozesuari dagozkion dinamikak babestuz. Adibidez, Espainiaren kasuan –hori baita unitate honetan aztertzen dena–, sektoreen espezializazio-prozesua sustatu da, besteak beste sukaldaritzara eta turismora bideratua, industria-adar jakin batzuen kalterako.

Unitate honetan eskualde-politika ere azaltzen da, eta horrek Europako ekonomien artean nagusi den heterogeneotasuna ulertzeke aukera ematen die ikasleei. Halere, gabezia batzuk ere badaude, erraz konpon zitezkeenak. Adibidez, konbergentzia-helburua aipatzen da, nominala eta erreala bereizi gabe, eta horrek aukera emango luke ulertzeke alde handiak daudela eskualdeen artean, batez besteko diru-sarrerei edo langabezia-tasei dagokienez. Era berean, eskualde-konbergentzia bultzatzeko dauden tresnak ere aipatzen dira, baina ez da esaten esleitutako baliabideak oso izaera mugatukoak direla eta horrek haien irismena mugatu duela.

Europar Batasuneko aurrekontuaren azterketari dagokion atalean bakarrik aipatzen da haren izaera estua, ekoizpen totalaren % 1 inguru besterik ez baita.

Egonkortasun eta Hazkunde Ituna (EHI) eta Europako Zerga Ituna (EZI) azaltzen direnean, eufemistikoki esaten da haren helburua dela “aurrekontu-politiken ondorio negatiboak saihestea” (262. or.), aipatu gabe zein diren ondorio horiek eta zein den Europako Banku Zentralaren (EBZ) zeregin berezia, estatuen jarduna mugatzen duena. Beraz, oso beharrezkoa da eduki horiek sartzea, nahiz eta azterketa hori ikuspegi aseptiko batetik egin nahi den, zeinak eragotzi egiten baitu aztertzea zer eragin duen diziplina fiskalak Europako biztanle gehienen bizibaldintzetan.

Espainiako ekonomia EBN txertatzeari buruzko azterketak unitatearen gainerako ildoari jarraitzen dio: **Espainiako Estatuari abantailak baino ekarri ez dizkion prozesu gisa erreparatzen da, haren ondorioak modu kritikoa baloratu gabe.** Adibidez, planteatzen da “Espainiako erakunde demokratikoak indartzea” ekarri duela, Europar Batasuneko politikek subiranotasun nazionalaren esparruan izan duten eragina baloratu gabe, bereziki Espainiak Egonkortasun Mekanismo Europarrera (EME) jo zuenetik finantza-laguntzaren bila. Halaber, planteatzen da “Espainiak ongizate-estatu bat sortu eta finkatu” duela, “Europako funtsek” lagunduta (264. or.), alde horretatik moneta-integrazioaren prozesuak izan dituen mugak baloratu gabe: euroan sartzeko ezarritako baldintzak betetzeko, Espainiako gobernuek pribatizazio-programa sakon bat egin zuten diru bakarria martxan jarri aurreko urteetan.

Gainera, EHIk eta EZIk ezarritako diziplina fiskal horrek, EBZren jarduera bereziak indartuta, benetako mugak ekarri ditu zerbitzu publikoen garapenerako. Zehazki, ez da aipamen bakar bat egiten Batasuneko erakundeek eskatutako konstituzio-aldaketari buruz, zeinak esan nahi baitu zor publikoa ordaintzeak lehentasuna duela oinarritzko zerbitzu publikoen horniduraren gainetik. Halaber, merkatu bakarrean parte hartzearen abantailak proposatzen dira, eta alde batera uzten dira horrek dakartzan ondorio negatiboak, hala nola soldatei eusteko sustatu duen prozesua. Bestalde, atal honi ere testuinguru

historikoa falta zaio, eta gabezia hori taula batekin (13.6) konpondu nahi da, inondik ere aski ez dena.

Berriz ere, **baikortasun areagotua dario globalizazioaren inguruko atalari, zeina, bide batez esanda, ez baita zehatz definitzen eta ez baita kapitalismoarekin lotzen.** Oso asmo onez, honako hau adierazten da: “Komenigarriena litzateke egoera txarrean daudenek ateratzea probetxurik handiena prozesu horretatik” (266. or.). Baina hor geratzen da globalizazioari egindako kritika: ez da gehiago sakontzen prozesu horren ondorioetan. Hori azaltzen duten faktoreen erreparatuari buruzko atalean, ez da lotzen kapitalaren balorizazio-premiekin. Aitzitik, bigarren mailako faktoreak zerrendatzen dira, izaera teknikokoak batez ere; adibidez, IKTen garapena, zeinek ahalbidetu egiten baitute, zalantzarik gabe, baina ez azaltzen. Era berean, nahasi egiten ditu globalizazioaren ondorioak berau azaltzen duten faktoreekin (kontsumo-jokabideen homogeneizazioa).

Jarduera batzuk interesgarriak dira (265. or.), eta integrazio-prozesuaren ondorioei buruz hausnartzeko bidea ematen dute. 6. behatokia jardueran, berriz, ikasleak EMNen botereaz kontzientziatu nahi dira. Halere, beste jarduera batzuek askoz izaera mugatuagoa dute. Itun fiskalen alorrean proposatzen diren jarduerak ez diete aparteko ekarpenik egiten ikasleei; izan ere, kasu jakin batzuen arabera balizko zigorrak kalkulatzeko gonbita egiten zaie, baina ez zaie egiten akordio horien ondorioei buruz hausnartzeko gonbitik. Hau da, zorpetze publikoari lotutako gaiak jorratzen dira, baina ikuspegi tekniko batetik, dimentsio soziopolitikoak alde batera utzita. Berriz ere, agerian geratzen da balio handiegia ematen zaiola norbanakoaren lehentasunek kontsumo-ereduen gainean duten eraginari (24. ariketa, 273. or.).

Ekonomia errealtatean atalean, jarduera interesgarri bat proposatzen da: Europar Batasunaren aurrekontuaren azterketa aplikatu bat planteatzen da, eta horrek EBren lehentasunak azpimarratzeko bidea ematen du.

Dilema atala ere interesgarria da, bi aukeraren arteko hautuari buruz eztabaidatzeko bidea ematen duelako: librekanbioa eta protekzionismoa. Nolanahi ere, apur bat errepikakorra da, aurreko unitatean (12) antzeko jarduera bat proposatzen delako.

Azkenik, *Bienvenido, Mister Marshall* filma ikustea gomendatzen da, eta oso hautu egokia da, ekonomiek finantza-laguntzekiko duten mendekotasunari buruz eztabaidatzeko aukera ematen duelako. Are gehiago, integrazioarekin eta lankidetzarekin lotutako edukiori

14. UNITATEA: MUNDUKO EKONOMIAREN DESOREKAK

Curriculumaren diseinuak ondoko egitura hau du, pixka bat artifiziala dirudiena: oro har, **munduko ekonomiaren funtzionamenduari buruzko ikuspegi idiliko bat gailentzen da, eta aditzera ematen da kapitalismoaren funtzionamenduari lotutako tentsioak akats puntualak besterik ez direla, politika ekonomikoa ondo kudeatuta konpon daitezkeenak.** Hau da, ikuspegi pedagogiko batetik, ikaskuntza-prozesua sustatu nahi bada naturalagoa litzateke ekonomia kapitalistaren funtzionamendua aztertu ahala munduko ekonomiaren desorekak aztertzen joatea. Nolanahi ere, unitate hau liburuan jasota dago, eta sarreratxoan esaten da arazo garrantzitsu batzuk jorratuko direla, hala nola ingurumen-inpaktua, azpigarapena, pobrezia eta migrazioak, baina alde batera uzten dira beste batzuk, horiek ere garrantzitsuak, hots, desparekotasuna

eta krisiak. Ez da zentzuzkoa gai horiek baztertzea; izan ere, kapitalismoaren bi muga handienetakoak dira, eta sistemaren garapen jasagarria eragozten dute.

Unitatearen hasierako testua migrazio-fluxuei buruzkoa da. Horrek edukiei ekin aurretik hausnarketa bat egiteko bidea ematen du –migrazioak eta herrialdeen garapen-mailan dauden desberdintasunak erlazioatuz–, eta fenomeno horren arrazoiak ulertzeko. Hau da, ez da mugatzen etorkinak helburuko ekonomietan integratzeko beharra justifikatzera –ez justizia sozialaren ikuspegitik, baizik eta ongizate-estatuari eusteko–.

Unitatea hazkudearen ondorioak aztertuz abiatzen da. Esaten da hazkunde ekonomikoak bizi-kalitatea hobetzeko bidea ematen duela. Hori baieztatzeko, ongizatearen definizio murriztaile bat eskaintzen da, errentarekin eta aberastasunarekin soilik erlazionatzen duena. Halere, lauki osagarri batean bi aldagai horien arteko erlazioari buruzko informazio gehiago ematen da, eta horrek aukera ematen du kapitalismoaren funtzionamendua ezaugarritzen duen desparekotasun gorakorra ulertzeko. Ikuspuntu negatiboari dagokionez, **kapitalismoan ekonomiaren hazkundetik eratorritako bi arazo nagusiak** aipatzen dira, **asko sakondu gabe: ingurumen-inpaktua** (hurrengo ataletan, arazo horri buruzko azalpen sakonagoak ematen dira) **eta horrek eragiten duen desparekotasuna.**

Aurrerago, **garapen ekonomikoan** jartzen da arreta, eta ikuspegi egoki batetik egiten da, agerian uzten baitira garapen ekonomikoak hazkudearekin identifikatzeko dauden mugak. Nolanahi ere, **ez da ematen kontzeptu horren definizio zehatz bat**; esaten da alderdi politikoak eta sozialak izan behar direla kontuan, baina ez da zehazten zeintzuk. **Garapena sustatzen duten faktoreak aztertzen dira, baina ikuspegi erabat ekonomizista eta partzial batetik**, hots: produktibitatea, inbertsioa, merkataritza askea eta egonkortasun politikoa. Lehenik eta behin, hezkuntza produktibitatea hobetzen lagundu dezakeen faktore gisa soilik aipatzen da, ez da azpimarratzen helburu soil gisa. Gainera, PISA probak aipatzen dira hezkuntza-sistemen kalitatearen erreferente gisa, eta horrek oso ikuspegi mugatua erakusten du. Era berean, ez dago merkataritza askeak garapena sustatzen duela erakusten duen ebidentzia enpirikorik; aitzitik, justu kontrakoak: azken hamarkadetan, Asiako hego-ekialdeko ekonomiek soilik lortu dute azpigarapen-egoera batetik abiatuta garapen-maila nabarmen hobetzea; horietan guztietan, funtsezkoa izan zen Estatuaren eginkizuna. Esaten da garapen-mailaren adierazle nagusia Giza Garapenaren Indizea (GGI) dela, eta, hura sakralizatu beharrean, proposatutako jardueretako batean haren mugez

hausnartzera gonbidatzen ditu ikasleak; hori egokia da, indizea kalkulatzeko arduratzen den erakundeak ere onartzen baitu ahuleziak dituela.

Ekonomien garapena azaltzeko dauden eredu nagusiak erreparatu dira. Nolabaiteko nahasmena dago ereduaren erabilera, errealitate soziala aztertzearen tresnak baitira, ez errealitate hori eraldatzeko baliabideak ("Eredu exogenoek esker, herrialde batzuk herrialde garatuak mailara iritsi dira..."). Eredu exogenoak eta endogenoak bereizten dira, eta esaten da eredu exogenoek berez dakartela errendimendu behar horrak izatea eskalan; ebidentzia enpirikoak, baina, baieztatzen hori gezurtatzen du.

Azpigarapena ia erabat ezaugarrituta ageri da, nahiz eta elementu garrantzitsu batzuk falta diren: beste unitate batzuetan gertatzen den bezala, honetan ere ikuspegi ahistorikoari eusten zaio, eta ez da aipatzen ekonomia azpigaratu gehien iragan koloniala. Era berean, nahiz eta nabarmen den ekonomia azpigaratu guztiek ekoizpen-espezializazioaren eredu bera dutela nolabait, ez da sakontzen lanaren nazioarteko banaketaren azterketan, eta horrek garapenaren eta azpigarapenaren arteko lotura ulertzeko bidea emango luke. **Interesgarria da Garapenerako Laguntza Ofizialari buruz ematen den ikuspegia, agerian uzten baitu eskaintako finantza-laguntzak herrialde igoeraren interes partikularrak ezkutatzeko dituela.** Hala ere, baliabide naturala aberatsak diren ekonomia azpigaratu kasuan sakontzen duenean (4. behatokia), egoera horren erantzukizuna haien gobernu ustelei egozten die, eta EMNak erantzukizun guztietatik salbuesten ditu, nahiz eta sare horietan inplikaturik dauden.

Egokia da migrazio-fluxuen azterketa aipatzea gaur egungo munduko ekonomiaren desoreketako baten gisan. Beharbada gehiegizkoa da esatea kapital-fluxuen eta pertsonen liberalizazioak "nabarmen sustatu dutela pertsonena" (284. or.), potentzia ekonomikoetan migrazio-politika murriztaileak baitira nagusi. Aditu-

ihesaren problematika aurkezten zaie ikasleei, eta oso egokia da, gertuko adibide bat baita haien artean, herrialdeko emigrazio-fluxuaren zati handi bat langile gazte eta gaituei baitagokie. Gainera, atalaren amaieran migrazio-fluxuek ekonomia garatuak eragiten dituzten erroreak azaltzen dira, eta azterketa hori immigranteen egoera zaurgarriarekiko sentsibilitate handiarekin jorratzen da.

Jarduera ekonomikoak ingurumenean dituen ondorioak zorrotzaz erreparatu dira. Hori bai, ingurumen-arazoei heltzeko neurriak buruzko ikuspegi kritikoago baten beharra sumatzen da, eraginkortasun txikiak izaten ari dira eta. Jardueretan bakarrik iradokitzen da ingurumen-arazoei aurre egiteko estrategia komunak ez hartzeak buruzko eztabaida.

Ariketa gehienak itxiagoak badira ere, jardueraren batek unitatean landutako edukietatik abiatuta hausnartzeko aukera ematen die ikasleei; adibidez, egunkarietako titularren iruzkina (10, 19), ikerketa oso mugatuetatik abiatutako balorazio gogoetatsua (12) eta testu laburren irakurketa (26).

Ekonomia errealitatean atalak aberastasunaren banaketari buruzko informazioa jasotzen du, eta, hortik abiatuta, hainbat jardura proposatzen dira. Jarduera hori oso egokia da; izan ere, arindu egiten du, neurri batean behintzat, desparekotasunarekin lotutako berriazko edukien falta. Aldez aurretik errentaren eta aberastasunaren arteko erlazioa azaldu denez, ikasleek aldagai horren kontzentrazioaren ondorioak uler ditzakete. Gainera, bereziki baliagarria da aberastasunari buruzko datuak aurkeztea, errenta baino askoz zailagoak direnak lortzen, batez ere kontuan hartzen bada beste aldagai horren gainean duen eragina, baita kontzentrazio-maila handiagoa duela ere.

Azkenik, garapen jasangarria aztertzen da, eta atala Garapen Jasangarriko Helburuetan (GJH) ardatzen da, hori baita mundu-mailako estrategia nagusia; planteamendu egokia da. Halere, proposatutako helburuen irismena oso mugatua da, eta ez da horren azterketa kritikorik egiten.

Beraz, oro har, **gai honetan ez zaio heltzen gaur egungo mundu-mailako ekonomiaren arazo nagusiak sakonago jorratzeko aukerari.** Orokorki, nolabaiteko onginahiarekin aztertzen dira, eta ikuspegi akritikoa da nagusi, desoreken jatorria kapitalismoaren funtzionamenduari lotzen ez duena.

Planteatutako *dilema* ingurumen-kaltearen aurkako borrokaren problematikari jartzen du arreta, eta horrek aukera ematen die ikasleei ulertzeko zer zailtasun dauden mundu-mailako arazo bat herrialde bakoitzak bere aldetik hartzen dituen erabakien bidez konpontzeko, ez baitago nazioz gaitzeko organismo bat beharrezkoak diren neurriak ezartzeko aski autonomia duenik.

Azkenik, dokumental bat proposatzen da ingurumen-inpaktuari eta garapen jasangarriarekin lotutako edukien lantzeko. Film horretan, agerian jartzen dira ingurumenaren nariadurarekin lotutako arazorik garrantzitsuenak; gainera, arazo horiei aurre egiteko egokienak diren estrategien inguruan eztabaidatzeko aukera ematen du.

Ondorioak

Atal honetan testuaren azterketatik ateratako ondorio nagusiak aurkeztuko ditugu. Lehenik eta behin, unitate bakoitzari dagozkion ondorioak aletuko ditugu, eta, segidan, orokorrak diren ondorio batzuk jasoko ditugu.

Unitateen elementu nagusien laburpena:

Lehenengo unitatean, agerian geratzen da testua oso ikuspegi murrizketatik gerturatu dela jarduera ekonomikoaren azterketara, zeina eskasiaren kontzeptuan oinarritzen baita. Aurrez aurre jartzen ditu baliabide ekonomikoaren izaera mugatua eta pertsonen ondasunen desiratu nahi izateko duten irrika etengabea, eta urakanaren begian kokatzen du eskasia. Hori guztia, indibidualismo metodologikoan oinarritutako ikuspegi batetik.

Bigarren unitatea hazkunde ekonomikoari buruzkoa da, eta jarraitu beharreko mantra gisa planteatzen da, haren desiragarritasunari buruz hausnartu gabe, ez bada testu osagarriaren batean eta modu anekdotikoan. Kontsumo eta hazkunde ekonomiko handienaren gupila bilatzen da. Era berean, ez da kontuan hartzen hazkunde ekonomiko mugagabea proposatu arren baliabideak mugatuak direla, eta hazkunde mugagabearen ideia ez datorrela inondik ere bat garapen iraunkorarekin. Hazkunde ekonomikoaren zatian, ekoizpen-aukeren muga azaltzen da, hau da, ekonomia sinplifikatzeko eredu konbentzionala, zeinak ekonomikoki baloratutako ondasunak soilik hartzen baititu kontuan, ekonomia baten gainerako ondasunak eta zerbitzuak bazterrean utzita.

Unitate honen bigarren zatia sistema ekonomikoari buruzkoa da, eta bi gogoeta hauek eragin dizkigu:

- **Kapitalismoari dagokionez**, ez dira gai nagusiak aipatzen, hala nola sistema honetako ekoizpen-prozesuaren helburua, ekoizpen-bitartekoei buruzko

jabetza-harremanak edo sistema honek berezkoak dituen klase sozialak. Estatuak sistema honetan betetzen duen eginkizuna azaltzerakoan, ondasun estrategikoak hornitzeko erantzukizuna ematen zaio, botere-harremanekin ia zerikusirik ez duen gai tekniko bat izango balitz bezala.

- **Plangintza-sistema zentralizatuari dagokionez**, haren ezaugarri den oinarritzko elementua azpimarratzen da: ekoizpen-bitartekoen jabetza estatalizatua. Era berean, azpimarragarria da ezen mozkinen eta akordioaren azterketa konparatiboa egin ordez sistemaren muga nagusien errebasoa egiten dela.

- **Azkenik, ekonomia mistoa** errealitateetik guztiz urrun dagoen ikuspegi batetik planteatzen da, oso xaloki, gainera. Irtenbide bedekintzat aurkeztzen da, aurreko bi sistemen abantaila nagusiak profitatzea ahalbidetzen duena, haien mugak gaindituz. Egia da Estatuak esku hartzen duela, baina bere jarduna ekoizpen-modu nagusiaren logikaren mende dago, hau da, kapitalismoaren mende. Berriz ere, errealitatearen bertsio gozo bat aurkeztzen zaie ikasleei, munduko ekonomiaren benetako tentsioak ezkututzen dituenak.

Hirugarren unitatea ekoizpenari eta enpresaren helburuei buruzkoa da, eta bi kontzeptuak errealitateetik urrun dagoen ikuspegi batetik planteatzen dira. Hala, enpresaren helburuei dagokionez, ez da zehazten mozkinak maximizatzea lehenesten dela. Bestalde, enpresaren gizarte-erantzukizunari buruz hitz egitean, ez da azaltzen askotan marketin-estrategia hutsa dela

gizarte-erantzukizun korporatiboaren ildoari jarraitzea. Halaber, une egokia izan zitekeen gizarte-ekintzaren esparruko enpresen gaia aztertzeko, baina ez dira aipatu ere egiten..

Laugarren unitatea merkatuari buruzkoa da, eta ekonomia bai bertsio klasikoaren bai bertsio neoklasikoaren ia oinarrian duen kontraesan bat erakusten du. Hau da, merkatua aurkeztu da mekanismo baten gisan, "magiaren" bidez eskaintzaileak eta eskatzaileak harremanetan jartzen dituenak; oreka batzuk sortzen dira, eta, etengabeak ez badira ere, hori da ondasun eta zerbitzu arruntten mundu mailako joera. Alfred Marshallen oreka-kurbetan oinarrituta, nolabaiteko normaltasun edo ateporalitate batetik abiatzen da, nahiz eta egiaz eraikuntza historiko bat den; gainera, salgai asko ez datoz bat salerosketaren erraztasun horrekin, zeina ez baita inondik ere samurra ez arazo eta gatazkarik gabea, eta, beraz, salgai horiek alde batera uzten dira erabat unitate honetan.

Bestalde, **bosgarren unitateak** merkatu motei buruz dihardu, eta, kasu honetan, bai bereizten ditu normaltzat eta orokortzat jotzen den egoera –lehia perfektua– eta beste agertoki posible batzuk, non ondasunen izaerak, enpresa batek edo batzuek merkatuaren gainean duten kontrolak eta beste inguruabar batzuek zientzia ekonomiko garaikidean desiratuak eta funtsezkoak diren oreketatik urruntzen gaituzten. Arrazoizkotzat hartu behar da merkatuen tipologia arrunt horren azalpena. Garrantzi berezia du ulertzeko zer desberdintasun dauden ekonomia errealean, faktore publikoak edo sozialak, lehen azaldutako merkatu arruntetako jardura asko baztertzen dituztenak.

Seigarren unitatean, lan-merkatuari buruzko azterketan onartzen da merkatu hori ez datorrela bat lehia perfektuaren ereduarekin, baina oso azalpen murriztailea ematen da horren funtzionamenduari buruz. Azterketa giza kapitalaren teorian oinarritzen da, eta banaketa-justizian oinarritutako soldata-ordainketari buruzko

nolabaiteko azalpena ematen da, esanez "zenbat eta produktiboagoa izan, orduan eta gehiago irabazten da". Gainera, langabezia langileen erabaki okerren ondoriozko arazotzat hartzen da, ez gizartearen arazotzat.

Zazpigarren unitatean, ondorio nagusia da Estatuak ekonomian esku hartzen duela merkatu-akatsak zuzentzeko, hainbat politika makroekonomiko proposatuz. Erro neoklasikoa duen arazoa izanik (Pigou, Ongizatearen Ekonomia), unitate honetan jarrera keynesiarra hartzen da, eredu hori behin ere aipatu gabe eta dagokion testuinguru historikoan kokatu gabe. Egungo egoerak, eta are gehiago COVID-19ak eragindako krisiaren ondoren, hausnarketa sakona eskatzen du, erabaki behar baitugu zer den hobe, esku hartzen jarraitzea, merkatuaren akatsak zuzentzeko, edo sistema ekonomikoaren oinarriak aldatzea. Adibidez, abiapuntuko errenten arteko desoreka edo sortzen diren kanpo-efektuak ez dira soilik ongi funtzionatzen duen merkatu-ekonomia baten "akatsak"; aitzitik, egiturazko akatsak dira, norabide-aldaketa erradikalago bat egitera gonbidatzen gaituztenak.

Zortzigarren unitatea dierazleei eta oreka makroekonomikoari buruzkoa da, eta BPGd-a hartzen du ekonomiaren adierazle nagusitzat. Testu osagarri batean indize horren gabeziak aipatzen dira, baina, halere, ez dira aipatzen planetaren mugak, ezta zaintza-lanak eta etxeko lanak ere. BPGd-aren adierazle osagarri gisa Giza Garapenaren Indizea proposatzen da. Indize hori beharrezkoa da, beste adierazle batzuekin batera —Giniren indizea, aztarna ekologikoa, gutxieneko gizarte-gastua, emakumeen pobrezia-tasa—, ekonomiaren ikuspegi osoagoa izateko.

Bederatzigarren unitateak estatuko kontuei buruz dihardu, eta sistema fiskalaren inguruan ageri duen ikuspegia guztiz konbentzionala da; esate batera, transferentzia-programei buruz hitz egitean ez da aipatu ere egiten oinarritzko errentaren kontzeptua. Era berean, ez da azaltzen gastu-beharrak handitu egin direla azken hamarkadetan eta gehieneko tasa, berriz, txikitu;

bilakaera horren ondorioz, errenta banatzeko ahalmen txikiagoa dugu. Halaber, ez da azaltzen zuzeneko zergen bidezko bilketa handitu eta zeharkako bidezkoa txikitu behar dugula, zerga-sistema progresiboago bat lortuko badugu. Bestalde, estatuko kontuen defizitaz hitz egitean ez du ematen 2008ko krisiaren ondoren estatuei eskatu zitzaizkien austeritateari eta haren ondorioei buruzko adibiderik.

Hamargarren unitatea diruari eta diru-politikari buruzkoa da, eta ekonomian esku-hartze publikoa egiteko erabiltzen den beste elementu garrantzitsu batean sakontzen da, hau da, dagokion agintaritzak –gure kasuan, Europako Banku Zentralak– dirua arautu eta sortzea. Azpimarratu behar da unitate osoan zehar helburu nagusia dela prezioen egonkortasuna politika ekonomikoaren beste helburu posible batzuen gainetik jartzea, eta, hala, beste behin ere joera neoklasiko edo monetaristaren paradigman sakontzea. Ikuspegi horretan oinarriturik, merkatu-ekonomien funtzionamenduari buruzko gai nagusi bat ebatzen da. Inflazioa eta horren kontrola –prezioak egonkorak izateko– beharrezkoak dira, baina ez da lehentasun ekonomiko posible bakarra, eta garrantzi handiagoa eman dakieke ekoizpenari eta enplegu- eta langabezia-mailei.

Bestalde, **hamaikagarren unitateak** finantza-sistemari eta burtsari buruz dihardu, eta ekonomiaren finantzazioan finantza-bitartekari batzuek duten rola azaltzen du. Nolanahi ere, bitartekari horiei ez zaie berariazko kritikarik egiten, eta bakarrik aipatzen dira burbuila-arriskua eta agente horien hegakortasunaren berezko ezegonkortasuna. Hala ere, ekonomiaren funtzionamendu egokian duen garrantzia azpimarratzen da, baliabide-kopuru izugarriak jartzeko edo kentzeko ahalmen handia baitu, nazioarteko estatu nagusiek baino askoz handiagoa. Garrantzitsua da azpimarratzea positiboa dela bankuek egiten duten diruaren efektu biderkatzailea egikaritzea; horren bidez, berez konplexua eta ezegonkorra den sistema batenganako ezinbesteko konfiantza sortzen da, interes oso jakinak dituen eta ez datorrena beti bat gizartearen gehiengoarekin bat.

Hamabigarren unitatea nazioarteko merkataritzari eskaini zaio, eta egitura egokiarekin da; izan ere, merkataritza-politika nagusien (irekiera eta protekzionismoa) arteko kontrastea aztertzen da, baita ordainketa-balantza eta dibisa-merkatuak ere. Hala ere, ikuspegi partzial batean oinarritutako azalpen bat ematen da, eta oso artifiziala den tonu aseptiko batean, gainera, alde batera uzten baitira faktore historikoak, ezinbestekoak direnak herrialdeek nazioarteko merkataritzan duten posizio desberdina ulertzeko.

Hamahirugarren unitatean Europar Batasuna aztertzen da, eta unitate osoan ageri da prozesuaren ikuspegi triunfalista eta, berriz ere, ahistorikoa. Espainiako ekonomia EBn txertatzeari buruzko azterlanak ildo berari jarraitzen dio: Espainiako estatuari abantailak baino ekarri ez dizkion prozesu gisa aurkezten da, haren ondorioak modu kritikoa baloratu gabe. Bestalde, globalizazioa aztertu aurretik ez da zehatz adierazten zertan datzan, eta ez da lotzen kapitalismoaren funtzionamendurekin. Era berean, globalizazioa pobrezia murrizten ari dela baieztatzen da garbi: berriz ere, atal honi gehiegizko optimismoa dario.

Hamalagarren unitateak testua ixten du. Gaur egungo mundu mailako ekonomiaren desoreka garrantzitsuenei buruz hitz egiten badu ere, orokorrean haren funtzionamenduari buruzko ikuspegi idiliko bat nagusitzen da, halako moldez non ematen baitu kapitalismoaren tentsioak akats puntual batzuk besterik ez direla, politika ekonomikoaren kudeaketa egokiarekin konpondu ahal izango liratekeenak.

[Unitate bakoitzari lotutako ondorio horietatik abiatuta, testuaren azterketatik ateratako ondorio orokor nagusien laburpenarekin bukatuko dugu txostena.](#)

Batxilergoko 1. mailako Ekonomia ikasgaiko McGraw-Hill liburuaren balorazioa

Oro har, uste dugu alde batera uzten dela gaur egun mundu mailako ekonomiak dituen arazo nagusiak sakonago jorrazteko aukera. Jarduera ekonomikoa aztertzeko, ikuspegi ahistorikoa hartzen da abiapuntutzat, eta, beraz, unibertsaltzat jo nahi dira kapitalismoak berezkoak dituen ekoizpen-harreman sozialak. Ez dira inon aipatzen nagusiki XIX. mendearen azken zatian kapitalismoa hedatzeko ezinbestekoak izan ziren harreman inperialistak, ekonomia nazioartekotzea eta lanaren nazioarteko banaketaren egungo egoera eragin zutenak. Nazioarteko erakunde nagusien ezarpenaren inguruko atalean ere agerikoa da testuinguru historikorik eza.

Era berean, giza portaera ikuspegi erredukzionista batetik azaltzen da; azalpen hori utilitarismoaren ikuspegi simple batean oinarrituta dago, portaera posible bakar gisa aurkezten dena. Gainera, indibidualismo metodologikotik aztertzen da, eta gizarte-arazo batzuk, langabezia kasu, banakoen erabaki txarren emaitzat jotzen dira, beste ezer kontuan hartu gabe. Horrela, ikasleari ezkutatu egiten zaio Ekonomiaren izaera gatazkatsua. Zehazki, analisi ekonomikoan balio-judizioak ager daitezkeela baieztatzen da, etika eta moralak bizitzatik banandu ahal balira bezala.

Ildo horretan, ekonomia mistoa (ez kapitalista, ez sozialista) errealitate guztiz urrun dagoen ikuspegi batetik planteatzen da, oso xaloki, eta sistema hori irtenbide bedekintzat aurkezten da, aurreko bi sistemen abantaila nagusiak profitatzea ahalbidetzen duena, haien mugak gaindituz. Salbuespen bat edo beste alde batera utzita –adibidez, langabeziaren azalpen keynesiarra eta neoklasikoa–, eskuliburu osoari ikuspegi bakarra dario.

Beraz, zer egin daiteke aurre egiteko Bigarren Hezkuntzako Ekonomia, Enpresa eta Finantza ikasgaien irakaskuntzan erabilitako baliabide nagusien diseinuari darion mugari? Datorren ikasturtean lantalde bat osatuko dugu Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako irakasle gehiagorekin, ekonomia, enpresa eta finantza irakasgai buruzko diagnostiko autonomikoak egiteko. Euskal Autonomia Erkidegotik eta Nafarroatik hasiko gara, eta elementu hauek identifikatuko ditugu: ikasgaietan erabiltzen diren testuliburu nagusiak, horien eragin-maila eta jorrazten dituzten gaietan ikaskuntza integrala eskaintzeko mugak.

Horrela, eskuliburuaren beharrezko erreformari laguntzen jarraituko dugu; izan ere, fenomeno ekonomikoaren egungo azaleko irakurketak inplikazio argiak ditu belaunaldi berriek gizartea ulertzeko eta –batez ere– eraldatzeko duten gaitasunean. Ezinbestekoa da irakaskuntza-gidak eta arazo hori zuzentzeko balio duten material didaktikoak sortzea. Beraz, dei egiten diogu irakasgai horietako irakasleen komunitate osoari, gurekin harremanetan jartzeko eta Finantzaz Haratago sareari laguntzeko, horrek finantzatu baitu txosten hau, eta horrek bultzatu baitu, halaber, esparru honetan esku hartzeko hemen aurkeztutako ildoak.